



Iurretako Gorulari dantzen 50. urteurrena ospatuko dute

Gehigarria • San Migelak ate joka daude lurretan. jaietako egitarauaren barruan ekitaldi bat gehitu dute aurten. Gorulari dantzak berreskuratu zituztela 50 urte igaro direla eta, saio berezia egingo dute. Taldekide beterano eta gazteekin dantzen inguruko gogoeta egin du ANBOTOK. • **13-20**



Euskal Herriko ardi txakur txapelketa Garain, zapatuan

Garai • Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako hamahiru artzai lehiatuko dira. Tartean, Kepa Ardanza abadiñarra, Urbi txakurragaz. • **7**



Nebrashkak lan labur berria kaleratu du

Kultura • Nebrashka talde durangarrak hiru abestiko lan berria kaleratu du aste honetan: 'Iraungipen datarik gabeko barreak'. Urrian zuzenean aurkeztuko du, Durangoko jaietan. • **24**

Elkarretaratzeak egin dituzte azken lan heriotzak salatzen

Elorrio • Baso lanetan zebilela, 54 urteko langile batek istripua izan zuen irailaren 5ean, Elorrioren. Langilea larri zegoen eta irailaren 8an hil egin zen. Lan heriotz hori salatzen, elkarretaratzeak egin dituzte asteon. CCOOk Elorrioren egin zuen elkarretaratzea. LABek, HIRUK, ESK-k, STEILASEk eta EHNEk, Bilbon. • **6**





“Alkoholagaz arazoak dituen norbaiten inguruan zazpi pertsona egon daitezke egoerak kaltetuta”

Aurten 60 urte betetzen dira Al-Anon elkarte Hego Euskal Herrian martxan ipini zenetik. Elkarteak alkoholikoak diren pertsonen familia eta gertukoei laguntzen die. Durangon ere badu egitura

ALKOHOLISMOA • EKAITZ HERRERA

Argi uztea komeni da. Alkoholiko Anonimoen elkarteak gaixotasuna daukan pertsonari laguntzea du helburu, alkoholikoari berari. Al-Anon elkarteak, oster, alkoholikoaren ingurukoei laguntzea du xede, haren senide zein gertukoei. Hain zuzen ere, alkoholismoaren ondorio kaltegarriak ingurukoengana ere zabaltzen direlako. Elkartean batzen direnek bilkura anonimoak egiten dituzte, elkarri entzunda eta enpatia landuta bidean aurrera egiteko. ANBOTO Al-Anon elkarteko kide bategaz batu da Bilbon. Elkartekideak bere identitatea gordetzea erabaki du.

Zergaitik erabaki duzu anonimotasuna gordetzea?

Anonimotasuna gordetzearen arrazoiak gure helburu nagusitik ez desbideratzea da, elkarri laguntzetik ez desbideratzea. Anonimotasunari eskerrak, bilkura bat egiten dugun aldiro. Nik ez dakit ondokoa nor den, bere familia zein den, non lan egiten duen, zein klase sozialetakoa den. Kontu horiek ez dute garrantzirik hartzen, eta, horrenbestez, garrantzitsua denak bereganatzen du arreta guztia. Hau da, errekupe-
ratzeak; beste hainbat pertsonagaz batera errekupe-
ratzeak. Eta hori guzti hori anonimotasunak bermatzen du.

Elkarteak 60 urte betetzen ditu Hego Euskal Herrian. Hamarkadarik hamarkada argi utzi duzue alkoholismoak ez diola bakarrik gaixoari

eragiten, bere inguruneari ere eragiten diola.

Bai, familia kutsatu egiten da. Alkoholagaz arazoak dituen pertsona baten inguruan zazpi pertsona egon daitezke egoerak kaltetuta. Eta eragin hori zuzenean zein zeharka jaso daiteke. Jaso dezakete familiako kideek, lankideek, inguru sozial hurbilekoak direnek... Izugarria da. Arazoa duen baten baten gertukoak bazara, hasieran posible da eraginik ez igartzea, beharbada horregaz bizi zarelako. Baina halako batean bai, konturatzen hasten zara. Beharbada txarto lo egingo duzu, kezkatuago egongo zara, edo erlojuari begira egongo zara bera etxera noiz ailegatuko zain. Beharbada bere lantokiko kideengan modu okerrean eragiten hasten dela igarriko duzu, lagun artean ere beste horrenbeste... Horrek guzti horrek familia barruko ertz askotan du eragina. Horretaz guztiaz ohartzea gakoa da errekupe-
ratzen hasteko eta bizitzan aurrera egiteko tresnak hartzeko.

Zeintzuk dira elkartera laguntza eske jotzen dutenen beharrian nagusiak?

Jendea lur jota etortzen da eta logikoa da. Ni neu, adibidez, oso nekatuta nengoan Al-Anon elkartera joan nintzanean, egoeragaz etsita. Baina, hori bai, ideia argi bategaz joan nintzen: laguntza behar zuena ni neu nintzen. Kontua ez zen nire familiako kide horrek edo lagun

batek, funtsean alkoholikoa den baten batek, laguntza behar zuela. Ez, ez. Laguntza nik neuk behar nuen. Hori oso argi neukan. Ibili nintzen psikologoekin, terapeutaekin. Horiek guzti horiek oso lagungarriak dira. Bakoitzak beharrezkoa duen eta baliagarria zaion laguntza topatu behar du, izan medikua, izan gimnasioa. Al-Anonen, adibidez, nire arazo berdina partekatzen zuen jendea topatu nuen. Eta arazoa zu lako beste askok partekatzen duela ikusteak egundoko indarra ematen dizu.

Doinu aldetik, rocka da, bai, baina grunge ukitua ere baduela esango nuke. Azken finean, hor batzen gara taldekiderik gehienok

Horrek norbera ahalduntzea dakar?

Bai. Sentipen horrek ahaldundu egiten zaitu, jendeak ulertzen zaitu. Horretaz jabetu arte zoraturata nengoela uste nuen. Oso pentsamendu txarrak nituen, oso toxikoak. Erietxe mentalen batean sartu beharko nindutela uste nuen. Eta, halako batean, bilkura batzuetara heldutakoan, konturatzen zara ezetz, ez zaizula ezer ere gertatzen. Gertatzen zaizuna

izugarri sufritzen zabiltzala dela, besterik ez. Eta aldi berean konturatzen zara arazoari aurre eginez gero bidean aurrera egin eta gainditu egingo duzula.

Al-Anonen datuen arabera, elkartearen bilkuretan parte hartzen duten %90 emakumeak dira. Alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen artean.

Bai. Eta honi erantzunda, automatikoki irteten den galdera honako hau da: “Eta hori, zergaitik?”. Bada, gizartearen ikuspegitik, gizonen baten alkoholismoa ikusgaiago dagoelako emakumearena baino. Ez naiz medikua, baina iruditzen zait emakume baten alkoholismoa askoz ere ezkatuago dagoela. Etxekoagoa izaten da, ezkutukoagoa, diskretuagoa. Gizonezkoena, oster, sozialagoa da, irekiagoa nire ustez. Nire esperientziak, behintzat, halantxik diost. Eta hor gizarte ezaugarriak, ezaugarri kulturalak, emakumei ezarri zaizkien zaintza rola... sartzen dira. Emakumeoi dagokigunez, oso gatxa da baten baten edanak gudan eragina duela onartzea. Al-Anonen atetik sartzen den emakumeari hasieratik esaten diogu bere senarragaz ezin dugula ezertxo ere egin. Berari lagunduko diogula esaten diogu. Gizonezkoek isilago daramate hau, barrurago. Alkoholagaz arazoak dituztenen eragina berdin-berdin sufritzen dute, baina esango nuke mina isila-

go daramatela. Gehiago kostatzen zaie onartzea txarto daudela.

Arazoa onartzeak zein zailtasun dauka?

Maite duzun pertsonaren baten edateko ohiturek eragiten dituztenean, ezin duzu miraririk egin. Nik bizitza erdi igaro dut "lagundu behar diot", "alkoholotik irtetzen lagundu behar diot" pentsatuz, halantxik jokatzeko. Ez, ez. Behea jo eta etsi nuen arte. Nik ezin nuen ezertxo ere egin. Asko ahalegindu arren, zure indar guztia ipini arren, zure ondoko hori ez da aldatuko. Gaixorik dago, gaixotasun bat dauka, kito.

Itxaropenerako mezua zabaldu ngura dut. Zulotik irten daitekeela ikusi dut, eta hori zabaldu gura dut

Distantzia bat hartu behar duzu harekiko. Gatz da azaltzen, baina, zelanbait esateko, maitasunez bada ere, hura emozionalki albo batera uztea dagokizu. Eta ez da bera pikutara bidaltzen zabilzala, ez, ez. Zelanbait ulertarazi behar diozu asko maite duzula, baina zeure burua babestu behar duzula. Berari uko egin barik, bere arazoari uko egiten zabilzala ulertarazi behar diozu.

Zelakoa da zuen bilkuren funtzionamendua? Hara doanak zer topatuko du?

Bilerak astero-astero egiten ditugu. Bakoitzak bere esperientzia partekatzen du gainerakoekin. Itxaropena eta kementa partekatzen ditugu. Horrez gainera, Al-Anoneko kideek idatziriko literatura irakurri eta testuak komentatzen ditugu. Horiek dira gure bileren oinarriak. Alkoholiko Anonimoek hamabi pausoko errekupeazio programa darabilte lan tresna modura. Guk ere antzera. Tresna horretan inspiratutako hamabi pausoko programa bat daukagu. Nik neuk, adibidez, bizitzako filosofia baten antzera uler-

tzen ditut programak. Izan ere, hamabi pauso horiek amaituta, ezer ere ez da amaierara heltzen. Gimnasioaren modukoa da. Kiroldegira joateko ohitura bertan behera uzten dugu programa bat amaiturikoan? Ez. Programa bat amaitu arren, kiroldegian jarraitzen duzu, hori guzti hori zuretzat onuragarria delako. Bada, hemen ere berdin, aurrera jarraitzen duzu. Gainera, kontuan hartu behar duzu min emozional handia egoten dela eta beti izan ditzakezula gorabeherak.

Elkartean esku hartzen dutenek zein onura igartzen dute?

Nire esperientzia kontatuko dizut. Orain beste pertsona bat naiz. Argi eta garbi diot. Eta nire ingurukoek eta elkarteko kideek ere iritzi hori bera dutela ikusiko duzu. Pertsona lasaiagoa naiz, irribarre egiten dut, lasai arnasten dut. Ez dut etengabe atzera begiratzen. Zerbait gustuko ez badut, ez dut burura etortzen zaidana berehalakoan zakar botako. Arnasa lasai hartu, gogoeta egin eta nire iritzia lasaitasunez ematen dut. Loaldi bakarragaz deskantsatzen naiz eta zoriontsua naiz. Funtsean, oso pozik

nago nire bizimoduak hartu duen norabide berriagaz, eta bide horretatik jarraitu gura dut.

Irakurleen batek Al-Anon elkarteagaz hartu-emanetan ipini gura badu, zer egin dezake?

Gugaz hartu-emanetan ipintzeko, lehenengo kontaktua telefonoa izaten da. 611 055 805 telefonoa herritarren zerbitzura dago, deitzeko zein whatsapp mezua idazteko. Gero, laguntza eskatzailea gure errekupeazio taldeetarikoa batera bideratzen dugu, Bizkaian aktibo ditugun zortzi taldeetarikoa batera. Hortik aurrera, bere egoeran dauden beste hainbat kideguz batzen hasiko da astero-astero. Gugana datorrenari sei saioko probaldia egitea proposatzen diogu. Izan ere, behin edo behin joanda bakarrik posible da pentsatzea bilkurek ez dutela eragin positiborik zuzen, eta, ondorioz, dena albo batera uztea. Sei saiotara etortzea proposatzen dugu, bilkurak onuragarriak izaten direla ikusteko.


Urriaren 7an ekitalditxo bat egingo duzue Al-Anonek 60 urte bete dituela ospatzeko.

Bai, halantxik da. Gauza hauek ospatu egin behar dira. Al-Ano-

nek 60 urteko bidea beteko du Espainiako estatuan. Egun horretan, Deustuko Bidarte udal aretoan batuko gara, 11:00etan. Ateak zabalik ditugu mundu guztiarentzat. Hori bai, gure telefonoan izena ematea eskertuko genuke. Lagun arteko zerbait izango da. Gure komunitateko jendea, osasun profesionalak, langile sozialak eta Alkoholiko Anonimoetako kideak batuko gara. Alateen elkarteari buruz ere berba egingo dugu. Nerabeei begirako lan ildo da. Bizkaian ez daukagu nerabeen talderik, baina baten batek beharrezana badu, prest daukagu arreta eskaintzeko egitura. Azken finean, 60. urteurrena gure elkarteari eta gure funtsari ikusgaitasuna emateko modu bat izango da.

Badago gehitu gura zenukeen ezer?

Itxaropen mezua transmititu gura dut. Maite duzun pertsonaren baten edateko ohiturek eragiten dituztenean, oso tunel iluna ikusten duzu, behea jotzen duzu. Bertatik irtengo ez duzula uste duzu. Baina nik konprobatu ahal izan dut zulotik irten daitekeela, eta mezu hori zabaldu gura nuke.



Al-Anon elkarteak hainbat informazio eta gida eskaintzen die laguntza behar dutenei

Zenbakiak

1 8

Al-Anon elkarteak Bizkaian dituen taldeak.

Elkarteak hiru talde ditu Bilbon, eta bana Gernikan, Ondarroan, Ermuan, Portugaleten eta Durangon. Durangon, Landako Kiroldegiko lokaletan elkartzen dira, eguen arratsaldeetan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

2 10

Bilera bakoitzean parte hartzen duen kide kopurua, gutxi gorabehera.

Kopurua egun batetik bestera zein leku batetik bestera aldatu izan daitekeen arren, gutxi gorabehera hamar bat kide batzen dira elkartearen bileretan.

3 %90

Bileretan parte hartzen duen emakume kopurua.

Al-Anonen bileretan parte hartzen duten hamar lagunetik bederatzitik emakumeak dira. Kopurua apur bat jaitsi da azken urteotan, baina aldeak handia izaten jarraitzen du.

4 611055805

Arreta telefonoa.

Alkoholagaz arazoak dituztenen senide eta lagunek telefono horretara jo dezakete laguntza eske. Berdin whatsapp mezua idatzita zein bertara deituta.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



Hemen eta online

Andraguneko aurtengo eskaintzak ahalegin berezia egingo du hamazortzi urtetik beherako neskekengana heltzeko

Adin tarte horri begirako lau ikastaro antolatu dituzte; autodefentsa feminista, hilekoa, hartu-eman digitalak eta parkourra dituzte ardatz

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Andragunetik eta Berdintasun Sailetik ikasturte honetarako antolatu dituzten ekintzen berri eman dute asteon. Aurtengo programa zabalaren barruan, ahalegin berezia egin dute 18 urtetik beherako neskekengana heltzeko. Lau ikastaro beren-beregi adin tarte horretara bideraturikoak dira. "Gazteen artean ezagutaraztea" eta Andragunea osatzen dutenen "sarea handitzea" dira helburuak, Jesica Ruiz Berdintasun Saileko zinegotziak azaldu duenez. Lau ikastaroak doakoak dira, euskaraz emango dira eta egun batekoak zein bikoak izango dira. Lehenengoa, 'Konektatuta zaude eta ez didazu erantzuten' deiturikoa, azaroaren 11n eta 18an izango da eta hartu-eman toxikoak eta genero-indarkeria identifikatzeko gakoak emango ditu. Hurrengo biak 2024ko otsailan izango dira eta 'Autodefentsa feminista' eta 'Hilekoaren zikloa elkarrekin ezagutzen' izeneko



Durangoko udalbatza osatzen duten zinegotzietako batzuk eta Nagore Uribe-Etxebarria berdintasun dinamizatzailea (eskuman).

gaiak landuko dituzte. Laugarren ikastaroa apirilean izango da, parkourraren ingurukoa.

Aurtengo eskaintza osoari dagokionez, hainbat alorretako 25 ikastaro batu dituzte —386 plaza,

guztira— eta urritik datorren urteko maiatzera bitartean garatuko dira. Bederatzi ikastaro euskaraz izango dira, hamahiru gaztelaniaz, eta hiru hizkuntza bietan. Batzuk urterokoak dira eta beste

batzuk berriak, hala nola musika eskolagaz batera antolatu duten 'Emakumeen arteko kantua berreskuratzen' ikastaroa. Tailer hori ahots kantuari lekua eta denbora emateko sortu dute. "Hainbat el-

kartegaz elkarlanean, gai, esparru eta adin tarte guztientzat interesgarriak izan daitezkeen ikastaroak landu dituzte", nabarmendu du Paule Sánchez EAJko zinegotzi eta Berdintasun Kontseiluko buruak.

Izen emateak

Ikastaroetan parte hartzeko, aurretik izena eman behar da, andragunea@durango.eus helbide elektronikoaren bitartez, telefonoz deituta (94 465 70 92) edo presentzialki. Andragunea hartzen duen Lariz Dorrean obretan daudenez, Bizenta Mogel udal bibliotekan egin daiteke aurrez aurreko izen ematea. Izena emateko epea irailaren 14tik 27ra bitartekoa da. Emakume bakoitzak hiru ikastarotan eman dezake izena gehienez, eta bere aukeren artean lehentasuna adierazi beharko du. Ondoren, ikastaroan tokia lortu dutenei SMS bidez abisutuko zaie eta matrikulatzeko epea urriaren 2tik 6ra artekoa izango da.

Txintxaunak, bizikletak garbitzeko gunea eta Kurutzia gako iturria konpontzea, Durangoko aurrekontu parte hartzaileetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak argitu du zeintzuk izango diren datorren urteko aurrekontuetan herritarrek hala bozkatuta egingo dituzten zortzi proiektuak. Honako hauek izango dira: udalerrian zehar gehiago sartzea (proiektuak 100.000 euroko aurrekontua izango du), zebra-pasabideen eta bidegorrien inguruko ikuspena hobetzea (200.000 euro), saskibalo kantxak

eta frontoiak sortzea (100.000 euro), San Fauston bizikletak garbitzeko gunea atontzea (20.000 euro), Fauste kaleko oinezkoen ibilbideari jarraipena egitea (60.000 euro), Madalengan umeentzako txintxaunak ipintzea (100.000 euro), Kurutzia gako iturria konpontzea (100.000 euro) eta Tabiran kultur eta kirol jarduerak hileroko hileroko antolatzea (25.000 euro). Horrenbestez, guztira, 800.000 euro ipini-

ko dituzte 2024ko aurrekontu parte hartzaileetarako. Bozketan 538 herritarrek parte hartu dute. Hamasei proiektu zeuden aukeran, eta aipaturiko zortzietatik egin dute aurrera. Asier Perugorria partaidetza zinegotziaren berbetan, herritarren parte hartzea "funtsezkoa" da "euren kezkek ezagutzeko eta proposamenak zein iradokizunak jasotzeko, Durango denon artean hobetzen jarraitzeko".



Madalengan umeentzako parkea egitea aurrekusi dute, Sasikoako txintxaunen antzerakoa.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko irailaren 15a
21. urtea - 948. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**
erakundearen
kalearen ondorioz
continuo de caudad
en la edición 109208083

PEFC ziurtagia
Produktu hau
sosteniblerako
materialak
egiteko erabiltzen
da eta Biko Kudeatza
Iturriaren
ziurtagia dauka
www.pefc.es
PEFC14-38-0025

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko gobernu taldeak 2024ko zergak eta tasak izoztea proposatu du

Herriaren Eskubideak %90eko deskontua ezarri gura du OHZ zergan (IBI), baliabide gutxien dutenentzat



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dena dagoen moduan uztea. Durangoko gobernu taldeak egun indarrean dauden prezioak eta tasak mantendu gura ditu datorren urteari begira. Halantzik jakinarazi du udalak ohar baten bitartez. Josune Escota alkateordeak azaldu du mahai gainean ipinitako proposamen honek "egungo ziurgabetasun ekonomikoari" erantzuten diola. "Tokiko administrazioek ahalegina egitea" erabaki dutela gaineratu du. Bestalde, eta berrikuntza lez, gobernu taldeak aurkezturiko zirriborroak familia ugariei begirako hobari bat jasotzen du Ondasunen eta Higiezinaren gaineko zergan. Hobari hori errentaren arabera aplikatuko litzatekeela azaldu dute.

Orain, gobernu taldeko kideek oposizio alderdien iritzia jaso gura dute. Lehenengoak prest agertu dira bigarrenen iritzia jasotzeko. Herriaren Eskubideak bere proposamena aurkeztu du. Talde independenteak hobari bat ezarri gura du Ondasunen eta Higiezinaren gaineko Zergan, baliabide ekonomiko gutxien duten herritarrei laguntze aldera. Deskontu hori %90ekoa izatea gura dute.

Orain, gobernu taldeko kideek oposizio alderdien iritzia jaso gura dute. Lehenengoak prest agertu dira bigarrenen iritzia jasotzeko. Herriaren Eskubideak bere proposamena aurkeztu du. Talde independenteak hobari bat ezarri gura du Ondasunen eta Higiezinaren gaineko Zergan, baliabide ekonomiko gutxien duten herritarrei laguntze aldera. Deskontu hori %90ekoa izatea gura dute.

Maristak ikastetxean Tourreko karabanen maketak diseinatuta hasi dute ikasturte berria

Guztira 600 bat ikaslek parte hartu zuten ekimenean



Irudimena eta elkarlana izan ziren egitasmoaren ardatzak.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Maristak ikastetxean, ikaskuntza kooperatiboa, erronkei aurre egiteko gaitasuna eta talde lana bultzatzen dituzten ariketa batez hasi dute ikasturtea. Uztailean Tourra ikastetxe aurretik igaro zela

aprobetxatuta, gai horri heldu diote. Oinarrizko elementu gutxi batzuekin karabana baten maketa diseinatu behar izan dute taldeka, eta maketa horri berbak eta mezuak gehitu dizkiote. 600 bat ikaslek parte hartu dute ekimenean.

Zornotzako euskaltegiek ikasketa programak prestatu dituzte beharrian guztiei erantzuteko

Udal Euskaltegiko, AEK-ko eta Barnetegiko kideek berrikuntzak batu dituzte ohiko ikasketa programan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zabal-zabalik dituzte ateak, eta inoiz baino gehiago. Zornotzako Udal Euskaltegiko, AEK-ko eta Barnetegiko kideek aurtengo ikasketa eskaintza aurkeztu dute, Jon Artabe euskara zinegotziagaz batera. Udal Euskaltegiak berrikuntzekin indartu du bere urteroko eskaintza. Aurten, B1 mailako

ikasketak batu dizkiote astean 6 orduko ikasketa programari. Era berean, Marisa Mentxaka zuzendariordeak azpimarratu du xede berezietarako ikastaroak eskainiko dituztela nagusi, guraso eta etorkinei begira. AEK-ko Alaitz Etxebarriak "euskara hurbil" izatea ipini du norbera "urrun heltzeko" tresna modura. "Euskara aktibo

lez ikustea garrantzitsua" dela gaineratu du. AEK-k aurrez aurreko saioak, autoikaskuntza, aipaturiko modalitate horien bien arteko konbinazioa eta sareko ikasketak jaso ditu bere eskaintzan. "Ez dago aitzakiarik", esan du Etxebarriak. Barnetegiko Maribi Zubiaga zuzendariak azpimarra berezia egin dio aurtengo nobedadeari: C1 maila lortu ahal izateko, doako ikastaroak emango dituzte 16tik 18 urtera bitarteko gazteentzat. Horrez gainera, nazioarteko ikasleak ere aipatu ditu. Urtarrietik aurrera, Hego Hemisferioko beste bost etorriko dira Zornotzara. Jon Artabe euskara zinegotziak euskara ikastera animatu ditu herritarrak, eta udalak euskararen normalizazioa lortzeko bidean duen konpromisoa berretsi du. Era berean, orain arte lez, pausoak elkarregaz egitera deitu ditu euskaltegiak.



Zornotzako euskaltegiatako arduradunak eta udal agintariak.

Zornoza Koralak ateak zabaldu ditu abesten hasi gura dutenentzat

Urterik urtera abesbatza osatzen duten kideen kopurua murriztuz joan dela eta, deialdi zabal bat egitea erabaki dute eurekin abestera batu gura dutenentzat

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Koralak argitu du bertan parte hartzeko ez dela beharrezkoa musika ikasketak eginda izatea edo aldezturik abesbatzaren batean ibilitakoa izatea. "Nahikoa da kantuz gozatzeko eta ikasteko gogoz egotea", argitu dute. Era berean, taldea musikan profesionala den zuzendari batek gidatzen duela gaineratu dute. Taldeagaz hartu-emanetan ipintzeko, 616 474 994 telefono zenbakia ipini dute eskura. Whatsapp mezua ere bidali daiteke. Entseguak astelehenetan egiten dituzte 20:45-22:00 ordutegiagaz, abesbatzak Harrison eraikinean daukan egoitzan.



Zornoza Koralak egindako emanaldi bat.

Elorrion elkarretaratzeak egin dituzte asteon, gertaturiko lan istripua salatzen

54 urteko langile bat hil da Elorrion, basoan lanean zebilela istripua izan eta egun batzuetara. Istripua irailaren 5ean gertatu zen eta langilea irailaren 8an hil zen, barikuan

ELORRIO • M.Z.

LAB sindikatuak aste honetan ohar baten bitartez jakinarazi duenez, 54 urteko langile bat hil da Elorrion, basoan beharrezko zebilela izandako lan istripu baten ondorioz. Istripua irailaren 5ean gertatu zen eta langilea hurrengo barikuan hil zen. "Oso lan istripu larria izan zen. Dirudienez, Elorrioko baso eremu batean lanean zebilela zuhaitz batek buruan jo zuen jausterakoan", azaldu dute.

LAB sindikatutik elkartasun osoa adierazi diete hildakoaren senide, lankide, lagun eta hurbilekoei.

Azken lan istripu hau salatzen, sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte asteon. LAB sindikatua, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru sindikatuekin mobilizatu da Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrealdean. Bestalde, CCOOko kideek Elorrion egin dute elkarretaratzea. CCOOkoek "ikerketa zorrotza" egitea eskatu diete Osalari eta Lan Ikuskaritzari.

Udalaren adierazpena

Bestalde, Elorrioko Udalaren bozeramaile batzordeak adierazpen instituzionala kaleratu du, eta "atsekabez" hartu du pertsona baten lan istripua. Era berean, Osalari eta Lan Ikuskaritzari heriotzaren nondik norakoak argitzeko eskatu diete, besteak beste.



CCOOk Elorrion egindako elkarretaratze argazkia.



LABek, HIRUK, ESK-k, STEILASEk eta EHNEk egindako elkarretaratze argazkia.

Abadiño Udalak herriko dendetan erosketak egiteko bonuak banatzen dabil

5, 30 eta 40 euroko bonuak daude eskuragarri herritarrentzat



Edure Maguregi alkateordea erdian, Abadiño merkatariekin.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño Udalak 50.000 euroko balioa duten 1.950 bonu ipini ditu herritarren eskura. Bonuen helburua saltoki txikiak eta tokiko ekoizleak sustatzea da. "Udalak herriko merkataritza-jarduera bultzatzeko konpromisoa hartu du, bonuen beste kanpaina baten bitartez. Dinamika positiboa dela uste dugu eta legegintzaldi honetan zabaldu egingo da", azaldu du Edure Maguregi alkateordeak.

Bonuei dagokienez, 65 urtetik gorako arteen 770 bonu berde banatuko dituzte (30 euroko deskontua 50 euroko gutxieneko erosketa batean erabiltzeko); langabeen arteen 600 bonu arrosa banatuko dituzte (40 euroko deskontua 50 euroko gutxieneko erosketa batean erabiltzeko); eta 18tik 65 urtera bitarteko arteen 580 bonu urdin (5 euroko deskontua 10 euroko gutxieneko erosketa batean erabiltzeko).

Elorrioko neska gazteek jasandako jazarpena salatu du mugimendu feministak

Jazarpenak "sare sozialen bitartez eta aurrez aurre" jasan dituztela salatu dute mugimendu feministako kideek

ELORRIO • EKAITZ HERRERA

Mugimendu feministak deituta, elorriar talde batek elkarretaratzea egin du asteon, herriko hainbat neska gazte jasandako jazarpena salatzen. Mugimendu feministak irailaren 4an jakin zuen gertatutakoaren berri. Eta handik egun gutxira, asteburuan, jakinarazi zuten jazarpen kasuak jaietan "leher-tu" direla, baina atzeragotik datozela. Azpimarratu dute, neskek "urteetan" jasan dituzte "mehatxuak, xantaia, manipulazioa, kontrola eta beldurra". Jazarpen hori "sare sozialen bitartez eta aurrez au-

rrer" jasan dutela zehaztu dute, eta gaineratu dute egileak bere "adin tartea eta posizioa" baliatzen zituela jazarpena egiteko.

Elorrioko mugimendu femi-

Egileak bere "adin tartea eta posizioa" baliatzen zituela jazarpena egiteko salatu dute

nistak joan zen barikuan eman zuen gertaturikoaren berri, plazako eszenatokian, Esne Beltza taldearen kontzertua hasteko zegoela.



Asteleheneko elkarretaratze argazkia.

Lotxoren erromeria eta DJ Luisma gaur Abadiñon, pijama eta kamisoi egunean

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguazten arratsaldean eman zieten hasiera Aitte Kurutzeko jaiak Abadiñon, Donien Atxa jasota. Gaurkoa, esaterako, egun berezia izaten da abadiñarrentzat, pijama eta kamisoi eguna ospatzen dute eta. 19:00etan elkarretaratzea egingo dute, pijama edo kamisoi jantzita eta, ondoren, txosna zabalduko dute. Gero, parrillada, Lotxo taldeagaz erromeria, umeen eta nagusien patata dantza, eta DJ Luisma egongo dira, besteak beste.

Zapatuan, tortilla txapelketa eta Markelen eta Peruren monologoak egongo dira. Domekan disfraz eguna egingo dute.

Atxondoko Udalak emakumeentzako irakurketa kluba antolatu du

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak emakumeentzako irakurketa kluba antolatu du. Mireia Delgado durangarrak zuzenduko du eta arratsaldeetan izango da, 16:15etik 17:45era. Guztira, sei saio izango dira eta hile bakoitzean saio bat egingo dutela iragarri dute antolatzaileek. Hauek dira saioen datak: urriak 4, azaroak 15, abenduak 13, urtarrilak 17, otsailak 14 eta martxoak 13.

Emakumeentzako irakurketa klubean izena eman gura duenak irailaren 29a baino lehenago egin beharko du, Atxondoko liburutegian.

Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa Garain jokatu da, zapatuan, 50. urteurrena ospatuta

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako hamahiru artzain lehiatuko dira, bakoitza bere txakurragaz. Txapelketak 50 urte beteko ditu aurten, eta ibilbidea hasi zuen leku berean ospatuko du urteurrena, Garain bertan



Iazko parte hartzaileak, Axpen. LAZARO MILIKUA

GARAI • EKAITZ HERRERA

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetatik ailegaturiko ardi txakurrik onenak euren artzainen esanetara lehiatuko dira Aiertza auzoan. 17:00etan ekingo diote lanari eta ekitaldia debalde izango da ikus-entzuleentzat.

Aurtengo edizio hau berezia izango da. Izan ere, Euskal Herriko ardi txakurren txapelketa 1973ko irailaren 16an jokatu zen lehenengoz, Garaiko Goierri auzoan. Egun hartan, Zuhatzako (Aiara, Araba) Jesus Azpiazu artzaina eta Montes txakurra izan ziren garaile. Harrezkero, txapelketa 1981ean, 1988an, 1997an, 1999an eta 2021ean jokatu da Garain. Eta

aurten, txapelketaren 50. urteurrena ospatzeko, ekitaldia bere sorlekura bueltatuko da, Oiz mendien altzoko herrira. Baina aurten Aiertzan jokatu da, Goierri auzoan barik.

Honako hauek izango dira lehiatuko diren artzain eta txakurrak: Fidel Alonso eta Lis txakurra (Areta, Laudio), Fidel Alonso eta Bat txakurra (Areta, Laudio), Jose Mari Jauregi eta Txipi txakurra (Ilarduia, Asparrena), Kepa Ardanza eta Urbi txakurra (Abadiño), Marcos Ispizua eta Hiru txakurra (Urduña), Enrike Mendiguren eta Laia txakurra (Orozko), Migel Arregi eta Lagun txakurra (Oñati), Javier Zubiaurre eta Mendi txakurra (Mutriku), Jose Mari Bengoa eta Zen txakurra (Oñati), Antonio Alustiza eta Txiki txakurra (Areso), Jesus Razkin eta Mendi txakurra (Etxarri Aranatz) eta Antonio Alustiza eta Bat txakurra (Areso). Horiez gainera, iazko txapelkunak ere izango dira lehian, Zallako Angel Varona eta Jai txakurra.

Ikasturte berrirako kultur eskaintza aurkeztu dute Iurretan, 817 plazagaz

Iurretarren irailaren 20ra arte dute izena emateko aukera; gainerakoek hilaren 20tik 22ra



Askotariko ikastaro eta ekintze osatzen dituzte urritik ekainera arteko egitarau finkoak.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Ibarretxe kultur etxeak eta Herri Bibliotekak ikasturte berrirako eskaintza zabala osatu dute. Guztira, 817 plaza eskainiko dituzte eta zabalik dago izena emateko epea. Baita Jabekuntza Eskolan eta migratzaileentzako zein nagusientzako ekintzetan parte hartzeko epea ere. Bertan erroldaturikoek irailaren 20ra arte dute aukera; gainerakoek, irailaren 20tik 22ra.

Nobedade lez, sendabellarrei buruzko ikastaroa eta puntu tailerra daude. Baita Korapiloak irakurketa kluba eta Agora eza-gutzaren plaza ere. Jabekuntza Eskolan sexualitate, autozaintza eta autodefentsa tailerrak egingo dira.

60 urteko durangarren eta iurretarren kinto bazkaria prestatzen dabilta

Oraingoz, 100 herritarrek eman dute izena bazkarirako

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Itziar Albizuri eta Karina Leaniz 1963an jaiotakoak dira. Lehenengoak 60 urte eginda ditu eta bigarrenaren urteguna urrian izango da. Bizitzako ziklo berriaren hasiera islatzen duen zenbaki borobila lagun artean ospatu gura dute, eta, horregaitik, 1963an jaiotakoei zuzenduriko kinto bazkaria antolatu dute irailaren 30eko zapatarako. Durangarrei eta iurretarrei zuzenduriko deialdia da. Horrelako bazkari bat antolatzen duten lehenengo aldia da. Herri hauetan kinto bazkari asko dagoela diote, baina, eurek dakitela, ez dago 60 urteko he-

rritarrei begirakorik. Horrenbestez, euren ospakizuna antolatzea animatu dira.

Ospakizuna 1963an jaiotakoei begira antolatu dute; irailaren 20an izango da

Oraingoz, 100 bat lagunek eman dute izena, baina irakurle- ren bat interesatuta balego, zabalik dauka ospakizunean inskribatzeko aukera. Interesa dutenek irailaren 20ra arteko epea dute apuntatzeko, honako telefono zenbaki bietan: 747 448 359 / 619 028 574.

BIODANTZA ATE IREKIAK

Irailak 19 · 18:30-20:30

Lourdesko Ama Ikastetxean, Elorrio

Mentxu 626 661 292

"Bizitza ospatzeko garaia da"

KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA

Urrian ikas ezazu margotzen!

IKASTARO BEREZIAK!

Eskatu informazioa eragozpenik barik

Tel.: 946 030 527 / 679 657 676

www.academiakurutziaga.com

bellasartesdurango@gmail.com

Kurutziaga, 24 DURANGO



Helduentzako ikastaroak



Haurrentzako ikastaroak

OTXANDIO • JONE GUENETXEA

Otxandioren eta Aramaioren artean dagoen lur zati batek eztabaida sortzen jarraitzen du oraindino ere. Ez dago argi eremu hori zein herriren jabetzakoa den. Iraileko hirugarren domekan, otxandiarrek Basabisita egiten dute inguru horretara. Irteera horretan, udal agintari zein herritarrek Limitaduren mugak aztertzen dituzte. Domeka honetan, ohiturari eutsiz, plazatik irtengo dira, 08:00etan.

Auzi historiko hau bere testuinguruan aztertzeko, Otxandioko Udalak ikerketa egitea eskatu zion Belen Bengoetxea arkeologo durangarrari. 2018tik 2020ra bitartean egin zuten ikerketa historiko sakon hau. Baturiko informazio hori guztia datorren urte hasieran publikatzea aurreikusten dutela iragarri du ikerlariak. Ezinbesteko publikazioa izango da herriko historia eza-gutzeko, mapa tematikoekin eta ondare ibilbideekin, besteak beste.

Ikerketa sakona

Bengoetxearen taldeak hainbeste urtetako auzia nondik eta zelan garatu den ikertu du. "Uste genuen oso garrantzitsua zela lur zati hori arkeologikoki irakurtzea. Hor dagoen paisaia ez da momentu batean sortu. Fase historiko ezberdinetako aztarnak daude. Era berean, irakurketa dokumentala ere egin dugu", azaldu du Belen Bengoetxeak.

Limitaduren gaiak XV. mendean du bere sorburua. "1457ko konkordia dokumentu bat daukagu, honen guztiaren abiapuntuan dagoena. Alde batetik, Aramaioko

Basabisita egingo dute domekan, otxandiarrek 500 urtean baino gehiagoan Limitadura egiten duten buelta

Belen Bengoetxea arkeologoak zuzenduriko taldeak eztabaida sortzen duen lur eremu honen inguruko ikerketa egin du



laz egindako Basabisitaren argazkia.

jauna dago, Juan Alonso de Mujica. Horrek basoaren aprobetxamenduagaz zerikusia duten eskubide batzuk eman zizkion Otxandiori. Ura ganaduari emateko, landareak aprobetxatzeko, egurra mozteko, nekazaritza praktikatzeke... Ez zion eman eskubiderik eraikitzeke, ezta arbolak behetik

ebakitzeko ere. Egurretarako bai, baina beste gauzetarako bere baimena beharko zuten. Beraz, lur horren aprobetxamendurik gehiena Otxandiok zeukan momentu horretan", azaldu du Bengoetxeak. Ikerlariak gaineratu duenez, dokumentu horretan ez da aipatzen ezer jurisdikzioari buruz. Beraz,

auzi jurisdikzional edo territoriala mantendu egin da gaur egunera arte. Gaia konplexua da, XV. mendetik hona beste eragile batzuek parte hartu dutelako tartean.

Eztabaida historiko honen beste momentu garrantzitsu bat 1664. urtea da. Bengoetxearen taldeak urte horretako dokumentu

bat aurkitu du, zeinetan Otxandioko alkateari *vara real de justicia* deritzona ematen zaion. Data horretan egin zen lehenengo Basabisita. Dokumentu horretan zehazten da munarriak nondik nora doazen. "Data horretan, Otxandiok kompetentzia gehiago eskuratu zuen. Limitaduan arazoren bat sortuz gero aprobetxamenduari zegokionez, Otxandiok izango zuen eskubidea justizia egiteko, eta ez Aramaiok", dio arkeologoak.

Paisaiaren garrantzia

Bengoetxeak garrantzia ematen dio Limitaduko paisaia baloratzeari: "300 elementutik gora katalogatu ditugu eta horrek balioa ematen dio inguru horri. Karobiak, bideak, arbolak... Arbolak kasuan, aprobetxatzeko ebakitzen dira, modu zehatz batzuetan. Zuhaitz lepatuak dira. Egur hori, segun eta zertarako gura duzun, modu batean edo beste lantzen da. Burdinolek egur mordo behar zuten eta hortik ateratzen zen. Horregaitik da hain garrantzitsua lursail hori. Planifikazio eta ustiaketa handia izan duen eremu bat da. Horrek guzti horrek markak utzi ditu paisaian, eta horiek interpretatzea interesgarria da".

Olinda taldeak kontzertua emango du Mañarian, gaur iluntzean

MAÑARIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bossa Nova, swing, bolero eta samba doinuak jotzen dituen eskualdeko Olinda musika taldeak kontzertua emango du gaur, irailak 15, Mañariko herriko plazan. Kontzertua iluntzeko 20:00etan hasiko da.

Abesti propioak biltzen dituen lehenengo diskoa ondu berri duen arren, Olinda taldeak hamarkada bat darama nazioarteko musika genero ugari zabaltzen. Laukotea Amaia Jaiok, Eider Gallastegik, Juanfer Gagok eta Eva Acerok osatzen dute.



Olinda taldeko laukotea.

Saibigain-Iturriotz pase lerroetarako azaroko postuak zozkatuko dituzte

IZURTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Izurtzako eta Mañariko Mugarra Ateneo Zinegetikoak jakinarazi duenez, dagoeneko eman daiteke izena Saibigain-Iturriotz pase lerroetan azaroko postuak eskuratu ahal izateko. Eskaerak Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian egin daitezke, astelehenetik barikura bitartean. Eskaerak egiteko azken eguna irailaren 28a izango da.

Izurtzako eta Mañariko Mugarra Ateneo Zinegetikoko kideek azaldu dutenez, zozketa orokorra irailaren 29an izango da, 20:00etan. Bazkideen zozketa geroago izango da, urriaren 17an, 19:00etan.

Diru laguntzak 16tik 18 urtera bitarteko gazteentzat, C1 maila ateratzeko

Gazte mallabitarrek baldintza bi bete beharko dituzte

MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

HABEK, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak, diru laguntza lerro berri bat ipini du martxan 16tik 18 urtera bitarteko gazteentzat 2023-2024 ikasturterako. C1 maila atera gura dutenei diruz laguntzea da diru laguntza horren helburua. Mallabiko Kaltxango AEK euskaltegitik jakinarazi dutenez, Mallabiko gazteek diru laguntza horretaz baliatzeko aukera izango dute, baldintza bi beteta. Lehenengoa da ikastaroan izena-ematerakoan C1-B2 maila izatea. Bigarrena asistentzia izango da. Gutxienez, %75eko asistentzia izan beharko dute ikasleek.

Bestalde, Mallabiko Udalak betiko diru laguntza lerroagaz jarraitzen duela jakinarazi dute Kaltxango AEK Euskaltegitiko kideek.

Euskaraz ikasi edo hobetu gura dutenek doan egiteko aukera izango dute Mallabian

Hori horrela, euskara ikasi edo hobetu gura dutenek doan egiteko aukera izango dutela azaldu dute. Lehenengo ikasleek matrikularen erdia ordaindu beharko dute, eta ostean, udalak dirua itzuliko die.

euskara hurbil,
zu urrun heltzeko



aek
euskara praktikoa

Zatoz AEKra

**Euskalduntze maila guztiak (A1,A2, B1, B2,C1)
C2**

Online ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · abarrak@aek.eus

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zornotza@aek.eus

Berriz / Zaldibar / Abadiño / Iurreta / Izurtza / Mañaria
662 966 827 · durangaldekoak@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: mailaren bat egiaztatuz gero

UDAL GUZTIEK

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

IRAILEKO ZOZKETAK



Migratzaileak dantza ikuskizunerako sarrera bikoitza. Irailaren 23an, San Agustinen.



Anbotoko Mari umeentzako antzerkirako sarrera bikoitza. Irailaren 24an, Arriolan.



Uxarte sagardotegian bi pertsonentzako jatordua.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Gosaria Xiberun: Jon Mendizabal Elexpuru

Teneré San Agustinen: Mikel Askazibar Bizkarralegorra

Gosaria Herrian: Pili Alberdi Loizate

Lasala 10 urte: Alvaro Gutierrez Gallardo

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Frankismoko biktimak gogoratzeko ekitaldia Berrizko Kultur Etxean egin zuten, eguraldiaren eraginez

Memoria eta Giza Eskubideen zikloa lehenengoz antolatu dute; egitarauaren barruan hiru dokumental proiektatu dituzte

BERRIZ • A. M.

Eguraldiak plana aldatu arren, frankismoko biktimak omendu zituzten Berrizen astelehenean, hilak 11. Aurten 86 urte bete dira Felipe Urriaga eta José Agirre berriztarrak Derioko (Bizkaia) hilerrian fusilatu zituztenetik; urte bereko abuztuan Gregorio Urkijo fusilatu zuten, eta urte batzuk geroago Fermin Aranguren hil

zuten Asturiasen (Espainia). Omenaldiaren ondoren, Txintxaun kolektiboak *Beste munduan elkar ikusi arte* antzezlan estreinatua zuen. Orain artean, 1936 Berriz Gogoratzeko kultur elkarteak antolatzen zituen memoriaren inguruko ekitaldiak; taldearen jarduna bertan behera uztea erabaki zuten, eta Berrizko Memoriaren eta Giza Eskubideen Taldea sortu dute.



Astelehenean egin zuten ekitaldia.

Bizi Berriz jaia ospatuko dute zapatuan, irailak 16, egun osoko egitarauagaz

BERRIZ • A. M.

Iazko moduan, Berrizko Merkataritza Elkarteak Bizi Berriz jaia antolatu du zapatarako, irailak 16, uda agurtu eta ikasturte berriari gogotsu ekiteko. Bigarren edizio hau 18:00etan hasiko da, izozki banaketagaz (izozkiak amaitu arte). Ordubete geroago, 19:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazoan *Katapuntxispun festa* emanaldia hasiko da. Eguraldi

Jaialdiaren bigarren edizioa da aurtengoa; 18:00etan hasiko da, izozkien banaketagaz

ona eginez gero, Olakuetan egingo da saioa; bestela, frontoian.

Berrizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak ekitaldia antolatzen lagundu dute. Euren berbetan, jaiaren helburua urteroko hitzordu bilakatzeko da, herriko establezimendu eta biztanleentzat ospakizun eguna izan dadin. Ekitaldiari buruzko informazio gehiago BME elkartearen webgunean ikusi daiteke, baita udalak ipiniko dituen paneletan ere.

Zaldibarko Udalak zortzi kirol jarduera eskainiko ditu ikasturte honetarako

Izen ematea irailaren 11n hasi zuten eta parte hartu gura dutenek 20ra arteko epea dute bertan apuntatzeko



Zaldibarko udaletxea.

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak zortzi kirol jarduera eskainiko ditu aurten 2023/2024 ikasturterako: gimnastika funtzionala, zumba, total body, gazte training, pilates, aerobic dance, step dance eta yoga. Horietan parte hartzeko izen ematea irailaren 11n zabaldu zuten, eta 20ra arte egongo da horretarako aukera. Ikasturte hasiera irailaren 25ean izango da, asteleheneagaz. Talde bakoitza zortzi lagunekoa izango da, gutxienez. Jardueretan aurrerago parte hartu gura dutenek horretarako aukera izango dute abenduan (1etik 15era), edo martxoan (1etik 15era). Izen emateak udaletxean bertan egin ahal izango dira. Eskaintzen diren zortzi jardueraz gainera, 65 urtetik gorakoentzat parke bioosungarrien erabilera ere sustatu gura du Zaldibarko Udalak. Informazio gehiago gura duenak www.zaldibar.eus webgunean aurkituko duela azaldu dute udal iturriek.

UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

**Eman zure botoa
udako argazki
lehiaketan**

Bozkatu

***www.anboto.org* webgunean**

Irailaren 22ra arte

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Elorrion giza katea egin dute zerbitzu publikoen alde

Joan zen eguenean egin zuten giza katea. Ehunka lagunek erantzun zioten Argi Gorriak egindako deia

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zerbitzu publikoek hartu duten norabidea salatzeko, joan zen eguenean giza kate dinamiko egin zuten Elorrioko kaleetan zehar. "Gizartea zahartzen eta zaintza beharrak handitzen dabilzan bitartean, gizarte zerbitzuak eta osasun publikoa gutxitzen ari dira", azaldu dute Argi Gorriak taldeko kideek. Deitzaileen berbetan, Elorrion

ere argi eta garbi ikusten dira arazo horiek. Eurek diotenez, alde batetik Elorrion ezinbestekoa da eguneko zentro baten beharra. Bestetik, Osakidetzak ez ditu medikuak eta pediatrik ordezkatzeko. Eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak Elorrioko Laguntza Zentroan ipini gura dituen bizikidetzaren unitateekin, "ohe publikoak eta lanpostu publikoak suntsituko dira".



Irailaren 7an egin zuten giza katea.

Durangaldea asteen

Hildako mendizaleak oroitzeko dituzte domekan, irailak 17, Besaiden

ATXONDO/ELORRIO | Domekan Besaide Oroimen Eguna ospatuko dute. Hildako mendizaleak oroitzeko eguna izango da. 10:30ean txalaparta saioa izango dute, 11:00etan oroimen ekitaldi zibila, eta 11:30ean Federazioko presidentek berba egingo du. Ondoren, 12:00etan dantzariak eta txistulariak egongo dira, eta gero Alaiak abesbatza.

Laguntza tekniko emango diete EKOS Jaialdiko parte hartzaile zornotzarrei

ZORNOTZA | Zornotzako Udalak laguntza tekniko emango die abenduaren 19an Donostian Kursoal Jauregian egingo den EKOS Gizarte Ekonomiako Sormen Jaialdiaren lehenengo edizioan parte hartu gura duten ikastetxe eta norbanakoei. Informazioa edo laguntza behar dutenak udal liburutegira joan daitezke edo 946 300 626 telefonora deitu edo setxebarria@amorebieta.eus helbidera idatzi dezakete.

Ongizate emozionala eta gaitasun digitalak lantzeko ikastaroak Durangon

DURANGO | Durangoko Udalak herritar nagusiei begirako hamasei ikastaro prestatu ditu zahartze aktiboa, ongizate emozionala eta gaitasun digitalak lantzeko. Iaz baino lau ikastaro gehiago dira, eta iaz baino sei talde gehiago osatu gura dituzte; 34 guztira. Denetara, 493 plaza daude zabalik.



Zapatuan Zumelegi erreka auzolanean garbitzeko deialdia Elorrion

ELORRIO | Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak, Elorrioko Udalaren babesagaz, Zumelegi erreka garbitzeko ekintza antolatu du zapatarako. Udaletik jakinarazi dutenez, 6 urtetik gorako edonori zuzenduta dago, baina 6tik 11 urtera bitarteko umeek nagusi batek lagunduta joan beharko dute.

Deialdi bi egin dituzte erreka garbitzera joateko. Umerik barik doazenak 09:00etan izango dute ordua, herriko plazan. Eta umeekin doazenak 11:00etan bertaratu beharko dira herriko plazara.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA • INPLANTOLOGIA • KIRURGIA
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA
ODONTOPIEDIATRIA - PADI • HORTZETAKO ESTETIKA
HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

PPS: 145-13





*Iurretako Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez!*

Iurretako jaiak 2023

Irailak 15, barikua

17:00 San Migel Padel Txapelketa

Irailak 16, zapatua

9:00 – 19:00 Gertasport 10. urteurrena. Txapelketa Larrako zelaian, kimuak

11:00 – 14:30 Emakume sortzaileen azoka

17:00 San Migel Padel Txapelketa

Irailak 17, domeka

12:00 San Migel Padel Txapelketa, finalak

18:30 PATXI TA KONPAINIAGaz erromeria plazan

Irailak 21, eguna

18:00 Bingo tonbola eta txokolatada Askondon

Irailak 22, barikua

17:00 Etxegoko irekieraren jaiak

17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots 'Urteak bete, abenturak bizi!' ikuskizuna plazan. Arratsaldean Tortilla Txapelketa kaskoan

20:00 Tortillen aurkezpena Askondon

22:00 EL PACTO ROCK BAND, Bruce Springsteen tributua Askondon

Irailak 23, zapatua

08:00 Mendi martxa

18:00 Profesionalen pilota partiduak

DJ Paco Musika Askondon. DANTZATZEKO PREST

20:00 – 21:00 Ume eta gazteentzat

21:00 – 23:00 Helduentzat

22:00 – 01:00 BELDUR BARIK GUNEA plazan 'EZ EZETZ DA – ERASO SEXISTARIK EZ!'

22:00 Rock kontzertuak: AÑUBE, HOFE, DUPLA

Irailak 24, domeka

12:45 Bizkaiko Ingude Txapelketa frontoian

17:00 – 19:00 Ume eta gazteentzako jolasak Iurretako plazan.

18:00 Giza proba desafioa Harriti (Arratia) - Iurreta

Irailak 28, eguna (San Migel bezpera)

12:00 Jaien hasiera Montoitik. Ondoren, kalejira herrian zehar ABURRECALLES txarangak eta BIZKAIKO GAITEROAK alaituta

14:00 Jubilatuen bazkaria Askondoko karpan. Jarraian, Uribesalgo soinu-joleagaz erromeria

14:30 Gazte bazkaria plazan

18:30 Ohiturazko Doniel Atxa jasotzea. Jarraian, dantzarien azken entsegua

22:00 Erromeria ALTXA PORRU

Irailak 29, barikua (San Migel eguna)

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara

12:30 Dantza saioa

16:00 Abentura ekintzak Etxegon

18:30 Dantza saioa. Gorulari dantzaren 50. urteurrena

20:00 Kantu kantari Egundo I taldeagaz plazan

21:00 Mariatxiak. Kalejira kaskoan zehar eta emanaldia Askondon.

22:00 Bertso saioa: Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi eta Miren Amuriza. Gai jartzailea: Miren Berriozabal

24:00 OXABI erromeria. Ondoren, PARY&TIZA DJA

Irailak 30, zapatua (mozorro eguna: Hamarkadak)

11:30 Perkusio tailerra (And Bolo)

12:30 Mozorro kalejira trikitilariak alaiturik

14:30 Bazkari herrikoa Askondoko karpan. Bazkal ostean Bingo musikatua

18:30 ZUTIK elektrotzaranga

21:00 – 22:00 LUHARTZ erromeria

22:00 Lekittoko deabruak. 'Soms diables deabruak gara' ikuskizuna

24:00 LUHARTZ erromeria. Ondoren, DJA

Urriak 1, domeka (Errosario eguna)

10:00 – 14:00 XXIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka Olaburun

11:00 Dantzari eta agintarien kalejira Montoitik plazara

12:30 Dantza saioa. Ondoren, Igel Txapelketa

17:00 Briska Txapelketa plazan. Saria: Arriaundi Egurrak emandako txapela

18:00 Dantza ikuskizuna. Iurretako dantzariak eta talde gonbidatua

Ondoren, jaietako errifen zozketa

20:00 Herri afaria

20:30 Erromeria LORRATZ taldeagaz

22:00 Jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuta

Oharra: Euria eginez gero, Jai Batzordeak erabakiko du, ikuskizunaren arabera beti ere, Kepa Arroitauregi frontoira edo Maiztegi Herri Eskolako frontoira leku aldatzea edo bertan behera uztea.

BAÑOS IURRETA

Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta

ITURGINTZA BEROGAILUA GASA

Tel-Faxa: 946 202 433
NICO: 629 233 318
Email: b.iurreta@yahoo.es

Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

INSTALAZIOAK
ETA BERRIKUNTZAK

ALDA S.L.

- Iturgintza
- Berogailua
- Gasa
- Igeltserotza
- Gremioen koordinazioa

C/ Uralde, 8 bajo
482015 IURRETA
Tel.: 94 681 20 86
cons.alda.sl@gmail.com

IURRETA

HARATEGIA FRUTA - DENDA

Bixente Kapanaga, 4 - IURRETA
Tel.: 687 568 200



IURRETA KOPISTEGIA

Bidebarrieta 1 Bajo
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 10 70
info@iurretakopi.com
www.iurretakopi.com

Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO PINUDIAK ZAINTZEN

Smurfit Kappa
Nervión



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6
48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com



Sanmigelak ate joka direnean, jaien bueltan sorturiko ekitaldiekin motorrak berotzen hasiko dira Iurretan

Jai Batzordeak egitarau anitza prestatu du udalaren eta herriko hainbat elkarteren laguntzagaz; aurtan, gainera, urteurren ospakizun bi izango dituzte



Jai Batzordeko, udaleko eta herriko hainbat elkartetako ordezkariak aurkeztu dute aurtengo sanmigeletako jai egitaraua.

Jaiak antolatzerako orduan herriko elkarteen parte hartzea nabarmendu dute Jai Batzordeko eta udaleko ordezkariak: "Askotariko jendearen nahiak asetzen ahalegintzen gara, nahiz eta askotan hori lortzea ez den erraza, eta aurtan ere ahalegin handia egin dugu horretan". Eñaut Airtzaguenaren iurretarrak egin du jaiak iragartzeko kartela. Gorulari Dantzei keinu eginez sorturiko lana da.

"Askotariko jendearen nahiak asetzen saiatzen gara, eta aurtan ere ahalegin handia egin dugu"

Irailaren 28an jaurtiriko txapliguekin hasiko dituzte jaiak, eta Gazte Asanbladak egun horretan bertan salgai ipiniko ditu aurtengo jaietako kamiseta eta zapiak, sanmigelelari merezitako ondoetoria emateko. San Migel jai "osasuntsuak" eta "askeak", bai Jai Batzordeak bai udalak nabarmendu dutenez. Horretarako, erasoei aurre egiteko protokoloa lantzen dabiltzala gogoratu dute. Urriaren 2ra bitartean, egunerokotik irten eta jai giroaz gozatzeko aukera dute Iurretan.

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Sanmigelak ate joka daude eta askotariko ekitaldiz osaturiko egitaraua prestatu dute Iurretan. Irailaren 28an Montoitik jaurtiko dituzten txapliguek jai giroz bustiko dituzte herriko kale eta bazterrak. Hala ere, jaien bueltan sorturiko hainbat ekitaldigaz motorrak berotzeko aukera dute iurretarrak, asteburu honetan hasita. Aurtan urteurren

bi ospatuko dituzte, gainera: 50 urte bete dira Gorulari Dantzak berreskuratu zirela, eta Gertasport elkarteak 10 urte egin ditu.

Jai Batzordeak egitarau anitza prestatu du udalaren eta herriko hainbat elkarteren laguntzagaz. Urteetan erroturiko ekitaldiek ez dute hutsik egingo aurtengo sanmigeletan ere: mozorro bazkaria, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen

ikuskizuna, bertso jaialdia, Zaldi mendi taldeak antolaturiko XII. Mendi Martxa, musika kontzertuak, tortilla txapelketa, umeentzako jolasak eta dantzariak, eta abar.

Urteurrenak

Ekitaldi horiek guztiak nobedade nagusi bigaz uztartuko dira: Gorulari Dantzak berreskuratu zireneko

50. urteurrena ospatuko dute eta hainbat belaunalditako dantzariak saioa egingo dute plazan, irailaren 29an. Estampa, Arkuak eta Zintak dantzatzeko dituzte. Bestalde, Gertasport elkarteak jardunaldi berezia antolatu du irailaren 16an 10. urteurrena ospatzeko. Larrakoze-lain izango da. Horrez gainera, San Migel Padel txapelketa ere jokatu da, lehenengoz.



IRIARTE

calderería / burdin lanak

Poligono Industrial Ertzila, 2 - Pabellones 17-18
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel. 946 814 890 - Fax: 946 816 245
contacto@caldereriairiarte.com

www.caldereriairiarte.com



MOINBE BERRIZ, S.L.

MONTAJES Y REPARACIONES INDUSTRIALES BERRIZ

Instalazioak eta konponketak:

PRENTSA HIDRAULIKOAK
PRENTSA MEKANIKOAK
ELIKAGAILUAK
MAKINEN BERRERAIKETA

Arriandi industrialdea, E - 37
Tel: 94 681 24 06 - Mug: 609 34 87 76 - Fax: 94 681 50 89
moinbeberrizsl@gmail.com / 48215 IURRETA / Bizkaia



NIFA, S.L.

AUTOSERVICIOS

Adituen esku euromaster.com

Pneumatikoak · Olio aldatzea ·
Berrikuspen ofiziala · Balaztak
· Motelgailuak



EUROMASTER

Mantenimiento del vehículo

AUTOSERVICIOS NIFA

Mallabiena auzoa, 4
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel (kamioiak): 946 812 604
Tel (turismoak): 946 812 566
nifa@autoserviciosnifa.com



SERAPIO CALVO

Pladur - Aislamientos - Escayola

TABIKEAK, SABAIK, TRASDOSATUAK

Igeltsu-dekorazioa
Sabai desmontagarriak • Isolatzeak

946 811 512 • 615 789 243
Bidebarrieta, 9 • 48215 Iurreta
info@serapiocalvo.es • www.serapiocalvo.es



ARRIBIDE

GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com
arribide.com

946 818 381
POL. IND. ARRIANDI, P-1
48215 IURRETA-BIZKAIA

Ondo pasa San Migeletan!



“Iurretako mendi martxa ahorik aho zabaldu da eta izena eta prestigioa hartu ditu”

Asier Iza Juaristi iurretarrak urteak daramatza Zaldaien mendi martxako anoa gune baten arduradun



Asier Iza Juaristi

Boluntarioa Iurretako mendi martxan
IURRETA | 1969

Zergaitik pasatu zinen martxako parte hartzaile izatetik antolaketan laguntzera?

Martxa askotan aritutakoa naiz eta denboragaz anoa puntuak inportanteak direla konturatzen zara. Beste toki askotakoak ikusita, neure herrikoan lagundu neza-keela pentsatu nuen. Azkenean Iurretako martxak izena hartu du, oso lan ona egiten delako. Ahorik

“Iurretako mendi martxa ibilbidean bizi duzunak bereizten du. Mugarra ostera sartzen zarenean... naturagaz bat egiten duzu”

aho zabaldu da eta prestigioa hartu du. Esaterako, anoa puntuak oso ondo daudela esango nuke; horixe esaten dute, behintzat, handik igarotzen direnek. Nik parte hartzen nuenean, 300 edo 400 bat ibiliko ginen martxan, baina azkeneko aldi batzuetan ia 1.000 lagun batu dira plazan.

Martxa asko egin eta ibilbide klase asko ezagutu duzu. Iurretakoa zerk bereizten du besteetatik?

Ibilbidean bizi duzunak bereizten du, ikusten duzun paisaiak. Mugarra partea ikusgarria da. Mugarra ostera sartzen zarenean... naturagaz bat egiten duzu. Paraje hori berezia da. Beste martxa batzuetan, basoko pistetatik eta pinadietatik ibiltzen zara sarritan, eta ez da berdina.

MENDI MARTXA • JOSEBA DERTEANO

Iurretako mendi martxak 12. aldia egingo du irailaren 23an. Urtero legez, boluntarioen lana funtsezkoa izango da urtetik urtera geroago eta jende

gehiago batzen duen ekimenean. Asier Iza Juaristi (Iurreta, 1969) martxako parte hartzaile izatetik, hesiaren beste aldera igaro zen orain lau-bost urte, Inunganeko anoa puntuko arduradun.

Martxa 08:30ean hasiko da, baina imajinatzen dut zure eguna lehentxogo hasiko dela.

Zazpietarako Iurretako plazara bajatuko gara. Kafetxo bat hartu,

furgoneta kargatu eta Dima aldetik Inunganera joango gara han anoa gunea atontzeko. Ez naiz bakarrik egongo. Bost lagunen artean egingo dugu.

Gauragi
Dantzari, 4 - behea
IURRETA

Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

HEKI
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

f Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

ELECTRODOMÉSTICOS
IZARBE
Lámparas • Artículos de regalo • Muebles de cocina y Hogar

TIEN 21
Especialistas en Electrodomésticos

C/ Bixente Kapanaga, 3
48215 IURRETA / Bizkaia

Tel.: 94 681 22 80
Fax: 94 621 63 36
izarbek@izarbek.com

DESGUACES PILASTRA

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079
Osagarrien salmenta: 946 201 787
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)

Dantzari Auzunea, 8
48215 Iurreta
Tel.: 94.681 14 79
628 233 584
www.garajesanmiguel.es
garajesanmiguel@gmail.com

Garage SAN MIGUEL de Iurreta, s.l.u.

Garage SAN MIGUEL
taller profesional
Kutxa automatikoen mantenua
Mekanika orokorrean
Zerbitzu bizkorra
Mantenua
Elektrizitatea
Pneumatikoak
Diagnosia
IATaren aurrekoa
Aire egokitua

IURRETA
La Bodeguilla
PINTXOAK eta SNACKS

Pintxoak eta aperitiboak

Dantzari auzunea, 6 - Iurreta
Tel.: 944 669 357

Oraindino jarraitzen duzu martxak egiten?

Apur bat utzita dut. Frontoian ere ibiltzen nintzen frontenisean, eta belauneko lesio txiki bat dut. Orain buruak baietz esaten dit, baina kostatzen da egiten zaitzela belaunetik errekuperatzea.

Hiru Haundiak egitean, helmugan familia guztia han ikustea itzela izan zen. Ez dut uste berriro halakorik biziko dudarik

Bere sasoiaren makina bat martxa egin zenuen.

Bai. Martxak, lasterketak, Hiru Haundiak... Eskolan ezaguturiko beste guraso batzuen artean oso giro ona dugu eta Euskal Herriko hainbat martxa egin dugu elkarrekin.

Martxa batetik Hiru Haundiak-era aldea dago. Zelan heldu zinen horra?

2014an egin nuen. Behobiako proba egin gura nuen eta korrika entrenatzen hasi nintzen. Behin, lehengusuekin-eta, Mendatako martxara joan ginen, prestaketa modura. Eta orduan sartu zitzaidan mendian korrika egiteko gogo. Sarriago egiten hasi nintzen; lehenengo, 20 kilometroko probak, gero 30ekoak, eta azkenean Hiru Haundiak-en parte hartzen amaitu nuen.

Zelako esperientzia izan zen?

Oso esperientzia ona, espero

nuen baino hobea. Gogoan dut Urkiolatik goizaldeko bostetan igaro nintzela. Bikotekidea eta seme-alabak zain nituen eta oso polita izan zen. Eta gero helmugan familia guztia han ikustea esperientzia itzela izan zen. Ez dut uste berriro halakorik biziko dudarik.

Ibilbidea, luzera... gogorra egin zitzaizun?

Fisikoki ondo eutsi nion. Urte asko neramatzan mendian ibiltzen eta martxak egiten, eta horrek sasoioko egoten laguntzen dizu. Psikologikoki gogorragoa egin zitzaidan. 60. kilometro inguruan, nigaz zetorren laguna erretiratu egin zen eta bakarrik geratu nintzen. Orduan, duda egin nuen, jarraitu ala ez, ze banekien aurretik zer zetorren: 40 kilometro oso gogorrak. Seme-alabek jarraitze- ra animatu ninduten eta aurrera egitea erabaki nuen. Eskerrak jarraitu nuela, ze bestela gaur damututa egongo nintzen.

Martxei dagokienez, nondik ibilitakoa zara?

Bizkaian, Nafarroan, Araban, Gipuzkoan... Gipuzkoan badago lasterketa bat markatu nindue-na: Donostiatik Hondarribira kostatuta doan Talaia bidea. Aurkikuntza bat izan zen. Paraje zoragarria da. Araban, Azazeta herritik Gasteizera zihoan beste martxa bat ere gogoan geratu zait. Mendi handirik barik, baina hamar bat tontortxotik pasatuz... ikusgarria izan zen. Europako mendietako probetan ere ibilitakoa naiz, desnibel handiko probetan.



Mendi martxan anoa puntu bi egongo dira Inungane eta Katzka inguruan. ZALDAI



Martxaren aurretik izena emateko aukera egoten da plazan. ZALDAI

www.zuremenua.eus 688614162 info@zuremenua.eus

etxerako zein lantokirako catering zerbitzua

zuremenua
gozatzeko otorduak

ospakizunak • txokoak • herri bazkariak
jaiak • enpresa bazkariak • luntxak

TXIRULA
MUSIK

TXIRULA MUSIK
Pol. Erzaila, 5 Par 20, 48215 - IURRETA

Ondo pasa San Migeletan!

Ingurukoak errespetatuz gozatu!

ditte san migel
jai batzordea

IKUSPEGI BERRIA

Eguneko menua astelehenetik barikura
Asteburuetan kartako menua
Pintxoak eta errazioak egunero
Martitzenetan itxita, asteko atseden eguna

Goiuria auzoa 12, 48215 Iurreta • 944 667 41 08

FURESA
FUNDICION NODULAR

“Iurretan Dantzari Dantza beti izan da lehenengo, Gorulari espeziala izan arren”

Gorulari dantzen 50. urteurrena ospatzeko, irailaren 29an hainbat belaunalditako dantzariak batuko dira plazan, 18:30ean



IURRETA • EKAITZ HERRERA

Aurten 50 urte bete dira Iurretako taldea Gorulari dantzak egiten hasi zela. Urteurren borobil hori baliatuta, ekitaldi berezia antolatu dute jaietarako. Miren Txabbarri Zuazo (Iurreta, 1947), Maitane Totorika Del Amo (Iurreta, 1999) eta Jose Jabier Abasolo Uribe 'Tiliño' (Iurreta, 1946) batuta, dantza hauen sorreraren eta bilakaeraren inguruko gogoeta egin du ANBOTOK.

Miren, orain 50 urte Gorulari dantzak dantzatzeko hasi zen talde hartakoa zara. Zelan gogoratzen duzu momentu hura?

Miren Txabbarri: Dantzariak egon bazeuden, eta gu eurekin ibiltzen ginen. Baina Durangon, Euskal Jaie-

tan, Gorulari Dantzak egin ziren. Hortik aurrera pentsatu genuen hemen ere berreskuratu zitekeela.

Jose Jabier Abasolo 'Tiliño': Iurretan Dantzari Dantza egiten zen. Baina dantza asko galduta genituen. Iñaki Irigoienek eta beste batzuek bultzatu zuten guk geure dantzak berreskuratzeko. Aurrekoa barik, soka antzeko bat egiten genuen. San Salbadoreko hurrengo domekan, Txonpolo arboladian dantzari onenak batzen ziren, euren artean aukeraketa bat egiteko, eta auzo denetarik etortzen ziren. Txistularia eta banderaduna etortzen ziren aukeraketa egitera. Hortik hasi ginen datuak batzen. Guk aurrekoa egiten ikasi genuen. Errotari maisua

“**Lehenengoz Donostiako udaletxe aurrean dantzatu genituen. Goizaldi dantza taldearen urteurren batera gonbidatu gintuzten**”

MIREN TXABARRI

gurpildun aulkian zegoen eta bere alaba Mirenegaz ikasi genituen aurrekuko pausoak. Bagenekenez Euskal Jaietan Gorulariak egin zirela, Iurretan ere gizon eta emakumeak batzea erabaki genuen dantza horiek ikasteko. Prozesu horren barruan izan zen. Elkarrizketa

asko egin genuen dantza hauek berreskuratzeko. Magnetofoiagaz ibiltzen nintzen grabazioak egiten. Leopoldo Zugazarengana jo nuen. Julian Altuberegana joateko esan zidan, Barrenkalen bizi zen. Harek datu piloa eman zidan. Salbazioa izan zen. Dokumentu bat topatu genuen, Domingilloa zelakoa zen azaltzen zuena. "Era la irrisión del pueblo" zioen idatzi hark Domingilloari buruz. Blanca Ellakuriak ere lagundu zigun.

Zelakoa izan zen ikasketa prozesua?

M. Txabbarri: Iurretako dantzari bizi-modua plazan egin dugu beti, eta bertan ikasi genuen. Gorulari, Arku Dantza eta Domingillo dantzak ikasi genituen. Arropak eta hori

guzti hori ere prestatzen ibili ginen. **Jose Jabier Abasolo 'Tiliño':** Estreinaldia baino lehenago, entsegu orokorra egin genuen plazan, eta Julian Altube etorri zen dena zuzen zegoen jakiteko. Baietz esan zigun.

Gogoratzen duzue Gorularien estreinaldia zelakoa izan zen?

M. Txabbarri: Lehenengoz Donostiako udaletxean dantzatu genituen. Goizaldi dantza taldearen urteurren batera gonbidatu gintuzten eta bertan egin genuen estreinaldia, udaletxeko pleno aretoan. Ia kabitu ere ez ginen egiten. Zortziko taldeak barik, launaka dantzatu behar izan genuen. Hortik aurrera, San Migeletan ere Gorulari dantzak dantzatzeko hasi ginen.

Jose Jabier Abasolo 'Tiliño': Merindadeko dantzak izanda, beste herrietako banderak ere eskegi genituen Donostiako estreinaldian. Biharamunean egunkarietan ere agertu zen. Handik aurrera, leku askotatik deitu ziguten.

Zelan prestatu zenuten arropa?

M. Txabbarri: Mikel Lizartza donostiarra ere lagundu zigun dantza arloan. Jantzien arloan Karmele Goñi bilbotarrak lagundu zigun. Berak azaldu zigun zelako jantziak egin, eta guk geuk josi genituen. Telak erosi eta Bego Belarren etxean bartzin ginen arropak eskuz josteko. Atorra, gainean gona, azpikogona, txalekoa, kopetak eta painelua. Goiuria ikastolara ere eramaten genituen makinak arropak josteko. Urteetara, gonak eta painelua berriztu ere egin izan ditugu, birritan edo horrela.

Emakumeek aurretik ere dantzan egin izan zenuten?

M. Txabbarri: Jose Mari Zarrabeitia dantzari amorratua zen eta haren taldea eta neska talde bat dantzan aritzen ginen. Paseo de San Roke dantza, esate baterako. Presentazioa egin genuen Mendizabalen txaleteko frontoian. Entseatu ere bertan egiten genuen. Gero, Iurretan dantzatu genuen. Neskak gona gorriekin eta blusa zuriagaz. Hamabost bat urte izango genituen. Baina gero, utzi egin genuen. Dantzari dantza lehiaketak ere egiten ziren. Erandion kopa irabazi genuen.

Maitane, zu belaunaldi gazteeneko dantzaria zara. Zelan baloratzen duzu



**ESTANCO
IURRETA**

Zubiaurre, 3 - 48215 Iurreta
Tel.: 944668237

URALDE
KLINIKA DENTAL

Begoña Zubimendi Goxencia

Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia

667 097 575 · 946 550 055
info@klinikaauralde.com
www.klinikaauralde.com



Vakasa
Mertzeria

Fray Juan Askondo 1
Iurreta
688 611 737



**GERLARI
KIROL ZENTROA**

JORGE HURTADO Zuzendaria

622 753 458
jorgehurtadonieves@gmail.com
Dantzari kalea, 6 behe
48215 Iurreta (Bizkaia)

Gorularien ibilbidea?

Maitane Totorika: Gu 2016an hasi ginen plazan entseatzen. Aldaketa urtea izan zen. Erabaki zen Dantzari Dantza ez zela bakarrik mutilentzat izango. Dantzan hasien ginen denok ikasiko genuela erabaki genuen. Hasieran Dantzari Dantza ikasi genuen, eta gero Gorularienak. Esango nuke gure belaunaldian bigarren plano batan izan ditugun dantzak direla.

Miren Txabarri: Iurretan Dantzari Dantza beti izan da lehenengo, Gorulari espeziala izan arren. Estra baten modukoa.



Hainbat belaunalditako Gorulariak elkarregaz dantzan.



Gorulariak berreskuratu zituen taldea, orain 50 urte.

Bilboko Aste Nagusian Iurretako dantza taldeko mutilek gona jantzita eta neskek prakak jantzita dantza egin dute, dantzaren arabera

MAITANE TOTORIKA

M. Totorika: Guk ere gogoeta hori egin izan dugu taldean. Adibidez, azkenengo Urrijenan gure taldeko batzuek esan zuten gurago zutela Gorularin parte hartu, Dantzari Dantzan barik. Lagun bik horixe esan zuten taldean. Gero, Dantzari Dantza ere egin zuten, talde parekidearen aldaketa gertatu zela baloratu genuelako, eta hori ere garrantzitsua zela. Izan ere, aurreko belaunaldietako emakumeekin berba egin izan dugunean, batzuek esaten dute beti sentitu dutela Gorulariena bigarren plano batean egon dela.

Zein garapen izan dute dantza hauek?

M. Totorika: Gure belaunaldian Gorulari dantzei beste buelta bat eman diegu. Dantzari Dantzan talde parekidean irten garen legez, berdin da neska zein mutil, Gorularietan ere berdin egin dugu. Bilboko Aste Nagusian, esate baterako, Iurretako dantza taldeko mutilek gona jantzita eta neskek prakak jantzita dantza egin dute, dantzaren arabera. Taldean gai hau luze eztabaidatu da. Iazko San Migeletan, Ibai taldekideak gonagaz irten zuen plazara Gorulari dantzak egitera. Ez dakit jendea asko fijatu zen eta horixe da helburua. Eta oso ondo hartu zen. Guk prakekin irten genuenean komentario gehiago egon zen.

Zelan baloratzen duzue bilakaera?

M. Txabarri: Bilakaera hori oso ondo ikusten dut.



Iurretako dantza taldearen belaunaldi berria Gorulari dantzak egin zituztenean San Migeletan.



GOIURIA ERRETEGIA

Bizkaiko jatetxe klasiko honetan jatea plazer hutsa da, duen terrazarekin eta ikuspegi ikusgarriekin. Gozatu egur-labeen egindako txuletoa, txerrikumea eta arkumea, txingarretan egindako arraina eta eguneko menuak.

Goiuria auzoa, 16
Erreserbak 662 915 621 telefonon

Astelehenetan itxita atsedendialdiatik



Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak

Dantzari Auzunea, 4-5 / Iurreta
Tel.: 630 149 417



**SALMENTA ETA ASISTENTZIA
TEKNIKO ZERBITZUA**

Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16 · 48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415 · asimair@asimair.com



UAI, 1 industrigunea (Orozketan errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxe: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

Irailaren 16an Emakume Sortzaileen Azoka egingo dute Iurretako plazan, 50 postugaz

Azoka 11:00etatik 14:30era bitartean izango da. 13:00etan, Uxue Kerejeta musikariak kontzertua emango du



Aurreko edizioako argazkia. MAITANE TOTORIKA

AZOKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iurretako Auskari neska gazteen taldeak antolatuta, Emakume Sortzaileen Azoka egingo dute

zapatuan, irailak 16, Iurretako plazan. Azokak hirugarren aldia izango du aurten, eta 11:00etan hasiko da. Postuak 14:30era ar-

te egingo dira plazan. Antolatzailerak azaldu dutenez, aurten Bizkai, Gipuzkoa eta Arabatik etorritako 50 emakume sortzai-

lek ipiniko dute postua Iurretan. "Azokako espazioa ondo kudeatzeko, aurten 50 posturen muga ipintzea erabaki dugu", azaldu dute Auskariko kideek.

Deneriko produktuak egongo dira azokan: jantziak, bitxiak, ilustrazioak eta kosmetika naturalak, besteak beste. Auskarikoek ere ipiniko dute euren postua. Bertan, eurek sorturiko Fanzine bat egongo da eskuragarri, eta baita Durangaldeko neska gazteen Biribilketan sorturiko hainbat produktu ere. Azokan zozketa bat ere egingo dute, parte hartuko duten artisauek Auskari neska gazteen taldeari emaniko produktuekin. Zozketa 14:00etatik 14:30era bitartean egingo dute. "Guretzat itzela da otzara honen zozketa egitea. Azken batean, guk espazio bat ipintzen diegu ekoizleei, eta eurek, trukean, produktu bana ematen digute otzara osatzeko. Oso eskertuta gaude", gaineratu dute Auskarikoek.

Horretaz guztiaz gainera, azoka girotzeko zuzeneko musika

egongo dela esan dute. 13:00etan, Uxue Kerejeta musikariak kontzertua emango du.

Aurreko edizioetan legez, azokak erantzun ona izatea espero dutela adierazi dute. "Aurreko urteetan azokak oso erantzun ona izan du, oso harrera ona. Jende asko animatu izan da eta aurten ere horrela izatea espero dugu", gaineratu dute.

Bestalde, urriaren 1ean XXIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute Olaburun

Nekazaritza azoka

Bestalde, urriaren 1ean, Errosario Egunean, XXIII. Nekazaritza eta Artisautza Azoka egingo dute. Olaburun egingo dute, frontoi aurrean, eta 32 postu egongo dira bertan. Horietatik lau artisauek izango dira. Horrez gainera, urtero lez, azokan txosna bat ipiniko dute, eta eguerdian txahal okelaren pintxoak banatuko dituzte. Umeentzat ludoteka ere egongo da. Azoka 10:00etan hasiko da eta 14:00ak arte egongo da zabalik.

Arupa San Migelak!!!

Azken biak!

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, behea
 48215, Iurreta



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



'Teneré-ko zuhaitza'

ANTZERKIA DURANGO :: Irailak 17

Teneréko zuhaitzaren istorioa Durangoko San Agustinen

Teneréko zuhaitza Saharako basamortuaren erdian dagoen arbolak da. Luzaroan lurreko zuhaitzik bakarti eta isolatuena izan da. Baina Teneréko zuhaitza ez da beti bakarrik egon; orain milioika urte, bera dagoen leku horretan bertan, bere moduko beste batzuk, basapiztiak eta ura bizi ziren. Batez ere, ura. Halaxe azaldu dute La Negra Teatro konpainiako kideek.

Teneréko zuhaitzari izugarri gustatzen zaio garai hori gogoratzea, eta baita dantza egin eta haizeagaz mugitzea ere. Atsegin du gauerdiaren Tuaregen karabanen bitak jasotzea, edo eguzkiagaitik neka-neka eginda dauden ibiltariek bere adarretan itzal hartzea. *Teneréko Zuhaitza* sustrai, argi eta itzalaren istorio bat da. San Agustín kulturgunean dago ikusgai, domekan, 18:00etan.

Irailaren 15ean

ABADIÑO Aitte kurutzekoak Pijama eta kamisoiekin elkarretaratzea eta jaietako txosna zabaltzea, Zelaietan.

Parrillada, 20:00etan.

Lotxo taldea, 20:30ean.

Umeen patata dantza, 21:30ean.

Dj Luisma, 23:30ean.

Nagusien patata dantza, 00:30ean.

Kulero eta galtzontzillo lasterketa, 03:00etan.

BERRIZ antzerkia

'Agurea, urpekarria eta itsasoa' (Hortzmuga konpainia), 17:00etan, Berrizjauregi lorategian (euria bada, eskolako patioan).

MAÑARIA musika

Olinda taldea 20:00etan, plazan.

ZALDIBAR antzerkia

'Jacuzzi' (niMú konpainia), 18:00etan, udaletxeko plazan.

Irailaren 16an

ABADIÑO Aitte kurutzekoak Umeentzako tailerrak eta puzgarriak, 17:30ean, Zelaietan.

Txapelketarako patata tortillen aurkezpena, 20:00etan.

Bakarrizketak: Markel eta Peru, 22:00etan.

BERRIZ jaia

Bizi Berriz jaia Berrizko Merkatarik Elkartek antolatuta, 18:00etan hasita, Olakuetan.

DURANGALDEA ekitaldia

Durangaldeko Etxera Eguna.

Manifestazioa, 12:00etan, Durangoko Santa Ana plazatik irtenda.

Ekitaldia, lurretan.

Bazkaria, 14:30ean.

Bazkalosteko bingo musikatua, 16:30ean.

Ostikada elektrotxaranga, 18:30ean.

DJ Kuku, 23:00etan, Intxaurren.

ELORRIO deialdia

Zumelegi erreka garbitzeko deialdia Elorrio-Atxondo

Baso Biziak elkarteak deituta, 09:00etan, herriko plazan.

Zabor bilketa 9:15etik

13:00etara egingo da.

Umeekin doazenak 11:00etan bertaratu beharko dira plazara, zabor bilketa eurentzat egokituriko gune batean egingo delako.

GARAI txapelketa

Euskal Herriko ardi txakurren lehiaketa, 17:00etan, Aiertza auzoan.

ZORNOTZA musika

Appaloosa Quartet,

20:00etan, Boroako San Pedro baselizan. Bertara joateko doako autobusa 19:30ean irtengo da, Gudari kaletik. Eleizatan kultur egitarauaren barruan.

Irailaren 17an

ABADIÑO Aitte kurutzekoak Mozorro eguna: Ipuinak Mozorroekin kalejira Mlomp kultur elkarteak lagunduta, 12:00etan, Zelaietan.

Herri bazkari autogestionatua, 14:00etan, Zelaietan.

Joxpa taldea, 17:00etan.

Txopoa botatzea, 20:00etan.

Txopoen luzera asmatzen duenari saria.

ZORNOTZA irakurketa

'Herejeen alaba' irakurketa

musikatua. Maider López

biola-jotzaileak eta Ander

Berrojaltz biz arrabita-

jotzaileak ipiniko dute

musika, eta Ainhoa Pinedak

testuak irakurriko ditu

19:00etan, Dudaeko San

Migel elizan. Bertara joateko

doako autobusa 19:30etan

Gudari kaletik. Eleizatan kultur

egitaraua.

Irailaren 19an

ZORNOTZA ikastaroa

Hasiberrientzako euskal

dantza ikastaroa (Maider

Berriok zuzenduta),

19:00etan, Besue elkartearen.

Besue, Bertoko Emakume

Sortzaileen Uztaren etxeak

antolatuta.

Irailaren 21ean

ABADIÑO musika

Sala eta Garazi, 19:00etan, Isiotu elkartearen.

Irailaren 22an

ABADIÑO karaokea

Karaoke lehiaketa,

19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

BERRIZ antzerkia

'Double Bill' (Two Much

Circus konpainia),

17:00etan, Olakueta plazan.

ELORRIO dantza

'Lasala 10 urte' dantza

ikuskizuna, 20:00etan,

Arriola antzokian.

ZALDIBAR bertsoak

Bertso afaria: Amets

Arzallus eta Alaia Martin,

21:00etan, Goierri auzoan.

Irailaren 23an

DURANGO dantza

'Migratzaileak' dantza

ikuskizuna (Aukeran

konpainia), 19:00etan, San

Agustín kulturgunean.

ZORNOTZA musika

Kuttune taldea, 20:00etan,

Etxanoko Andra Marian.

Bertara joateko doako

autobusa 19:30etan, Gudari

kaletik. Eleizatan kultur

egitaraua.

Urriaren 3ra bitartean

ZORNOTZA erakusketa

Santos Okinaren oleoak,

Zelaieta Zentroko lehen

solairuan. Zornotzako baserri

zaharrak eta txokoak batu ditu

erakusketan.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Misterio en Venecia**
barikua 15: 18:30 / 21:00
zapatua 16: 16:45 / 19:00 / 21:30
domeka 17: 17:00 / 19:30
astelehena 18: 18:00 / 20:15
martitzena 19: 18:00 / 20:15
eguztzena 20: 19:00 / 21:00

• **After. Aquí acaba todo**
barikua 15: 18:30 / 21:00
zapatua 16: 17:30 / 19:30 / 21:30
domeka 17: 18:00 / 20:00
astelehena 18: 18:00 / 20:15
martitzena 19: 18:00 / 20:15
eguztzena 20: 21:00

• **Todos los nombres de Dios**
barikua 15: 18:30 / 21:00
zapatua 16: 19:00 / 21:30
domeka 17: 19:30
astelehena 18: 18:00 / 20:15
martitzena 19: 18:00 / 20:15
eguztzena 20: 19:00

• **Vampiro al rescate**
zapatua 16: 16:45
domeka 17: 17:00

• **El oro del Rin (opera)**
eguztzena 20: 20:15

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Campeonex**
barikua 15: 20:00
zapatua 16: 20:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:15

• **Me he tragado un extraterrestre**
zapatua 16: 17:00
domeka 17: 17:00

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

* **Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

“Punka, folka eta metala batzen dituen hori izan daiteke grungea; hor nahiko identifikatuta sentitzen gara denok”

Nebrashka taula gainera bueltatuko da urriaren 13an, Durangoko jaiekin batera; laukote formatuan emango duen lehenengo emanaldia izango da



Nebrashka.

Out eta Nebrashka. Dolu hori igarota, taldea berreskuratzeari ekin genion. Nik gitarra albo batera utzi, eta baxua hartu nuen. Beste norbait bilatzea ere pasatu zitzaigun burutik, baina taldearen izaeragaitik eta erritmoengaitik, bagenekien ez zela erraza izango. Niretzat ere erronka bat izan da, baina banuen gogo baxuagaz saltsan ibiltzeko. Eta, jakina, kalitate aldetik galdu egin dugu, argi eta garbi (barrez), Markosek nik baino askoz ere hobeto jotzen duelako baxua. Martxa hartzea kostatu zait eta horrek ere geldotu egin du taldea. Estilo aldetik ere igarriko dira aldaketak, baxu doinuak sinplifikatu egin ditugu baina punk rock ukitua nabarmenagoa da. Desberdinagoa da. Durangokoa izango da laukote legez emango dugun lehenengo kontzertua.

Urriaren 13an kontzertua emango duzue Durangon, jaietan. Gogotsu?

Bai, jakina. Ez dakizu zelako gogo dugun kontzertu bat emateko! Urtebetez atzeratu behar izan ditugu gure planak, gainera, Alain aita izan delako berriro. Ia urtebetez hozkailuan eduki behar izan ditugu planak. Hasieran, Plateruenean jotzeko asmoa genuen, baina datak-eta mugitzaerakoan, jaietan jotzeko aukera irten zen, eta guretzat aukera polita izan zitekeela iruditu zitzaigun. Gure lagunak, familien eta gure jendearen aurrean abesti hauek aurkeztea, toki polit batean jotzea, soinu polit batez... Iluntze dibertigarri bat pasatzeko aukera itzela da, eta gogo itzela dugu.

Baduzue beste kontzerturik lotuta?

Oraingo ez. Hala ere, aurretik esan dudana moduan, gure erritmoa motela da eta ez daukagu presa askorik ere. Orain, batez ere, abestien promozioan zentratuta gaude. Joko ditugunak ondo aukeratuta jotzea gura dugu. Azken finean, ondo pasatuko dugun lekuetan eman gura ditugu kontzertuak, ondo pasatzea delako gure helburua. Orain hasiko gara lanean kontzertu sorta bat lotzeko; Durangaldean ez ezik, kanpoan jotzea gustatuko litzaiguke, Bilbon adibidez, edo Araban, ni Gasteizen bizi naiz-eta urte batzuetatik hona. Sermond's-en garaian Baigorri eta Kanbon jon genuen, eta horrelakoren bat errepikatzea ondo legoke. Uda ez da garairik onena horrelakoak lotzeko, eta, beraz, orain hasiko gara serioago lanean.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Nebrashka talde durangarrak *Iraungipen datarik gabeko barreak* hiru abestiko EPa kaleratu du oraintsu. Laukote legez kaleratu duen lehenengo lana da hau, Markos Agirrek taldea utzi ostean. Egun, Ander Bastida, Alain Asenjo, Txerra González eta Gorka Muñoz dira Nebrashka. Muñozegaz berba egin du ANBOTOK.

Egunsenti konfinatuak entzuterakoan, COVIDak eragindako osasun krisira darama entzulea. Orduan sorturiko abestiak dira?

Nebrashka talde geldoa da, gure erritmoak astiro doaz; seme-alabak ditugu denok eta gauzak zaildu egiten dira. Abestiak pandemia garaikoak dira, apur bat geroagoak. Markosek taldea utzi zuen hor, guk ere geure gauzak izan genituen... baina hor bizitakoak islatzen dira abestietan. Sortze prozesua beti oinarritu izan dugu bizitakoan, bai Bastiren hitzetan, bai musika doinueta.

Rocka oinarri, baina zertzelada desberdinak igartzen dira hiru abestietan. Gustura egindako lanagaz?

Galdera gaxa da erantzuteko. Oso gustura gaude egindako lanagaz. Apur bat luzeagoa izatea gustatuko litzaiguke, baina ditugun baliabideekin... Baliabide ekonomikoek

Doinu aldetik, rocka da, bai, baina grunge ukitua ere baduela esango nuke. Azken finean, hor batzen gara taldekiderik gehienok

ere asko mugatzen gaituzte; ez da berdina 6.000 edo 10.000 euro edukitzea grabaziorako, edo 2.000 euro edo gutxiago. Guk Xanpegaz grabatu dugu [Jose Manuel Sampedro]. Oso hartu-eman ona daukagu beragaz. Bere garaian Rat-zinger

taldean aritu zen, eta ni Sermond's-en nenbilenean lagunak egin ginen; horrez gainera, malgutasuna ere badugu beragaz lan egiteko, eta hori oso ondo datorkigu guri. Beste grabazio batzuen etenaldi edo tartetan grabatu dugu. Soinu aldetik ere gustura gaude, izan ere, berdifinitzen ari gara orain; gitarra bakarra dugu orain, eta horrek beste dimentsio batera eraman du gure soinua. Doinu aldetik, rocka da, bai, baina grunge ukitua ere baduela esango nuke. Azken finean, hor batzen gara taldekiderik gehienok. Batzuk punk rocketik gatzoz, beste batzuk rock and roll klasikoago batetik, eta baita metaletik ere. Orduan, punka, folka eta metala batzen diuen hori grungea izan daiteke. Hor nahiko identifikatuta sentitzen gara denok. Baina ez gara estilo bakarrera mugatzen. Abesti batzuek tenpo lasaigoa dute, beste batzuek abiadura handiagoa, batzuek pop ukitu handiagoa beste batzuek baino.

Laukote legez kaleratzen duzuen lehenengo lana da. Zelan moldatu zarete Markos barik? Eman duzue zuzenekorik laurok bakarrik?

Laurok bakarrik ez dugu inoiz jo. Markosek beste bizi proiektu batzuk zituen eta bere erabakia errespetatu genuen, jakina. Tal-

Gure lagunak eta familien aurrean abesti hauek aurkeztea iluntze dibertigarri bat pasatzeko aukera itzela da, eta gogo itzela dugu

dean dolu moduko bat bizi izan genuen. Nik, gainera, pertsonalki asko konpartitu dut beragaz, bai taldekide modura eta baita lagun modura ere. Hainbat rock taldeetan jo dugu elkarregaz, Perros del diablo, Tuesday evenings, Yoko



Txapelketaren aurkezpeneko argazkia.

Urriaren 1ean hasiko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Mungian

Abenduaren 16an amaituko da, Bilbon; finalurrekoetako saio bat Berrizen izango da

BERTSOLARITZA • A. M.

Urria hasteagaz batera ekingo diote Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bigarren faseari. Guztira, sei kanporaketa, hiru finalurreko (horietariko bat Berrizen, azaroaren 11n) eta finala jokatu dira. Kanporaketetan 30 bertsolarik parte hartuko dute; tartean, Durangaldeko hamar lagunek. Aritz Katarainek (Mallabia), Txaber Altubek (Abadiño), Bittor Altubek (Abadiño), Garikoitz Sarriugartek (Zaldibar), Iruri Altzerrekak (Gara), Ander Sarriugartek (Durango), Igor Galarzak (Abadiño) eta Eneko

Abasolo 'Abarkas'-ek (Iurreta) lehenengo kanporaketetan abestuko dute; 2021ean finalista izan ziren Gorka Pagonabarragak (Durango) eta Aitor Bizkarrak (Abadiño) finalurrekoetan kantatuko dute zuzenean; Berrizkoan lehenengoak, eta Santurtzikoa bigarrenak. Final handia Bilbao Arenan izango da, abenduaren 16an. Hiru finalurrekoetako irabazleek eta punturik gehien lortzen duten bost bertsolariek abestuko dute bertan. Kanporaketa saioetarako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean.

Urriaren 21etik aurrera

Bestalde, Ahalduntze Bertso Eskola Feministaren bederatzigarren ikasturtean izena emateko epea zabaldu dute. Plazako bat-bateko jardunari begira trebatu gura duten emakume* bertsolarientzako eskola da Ahalduntze Bertso Eskola Feminista. Parte hartu gura dutenek irailaren 29rako eman beharko dute izena, eta urriaren 21ean hasiko da ikasturtea. Talde bi sortuko dira, bata Durangoko Bizkaiko Bertsozale Elkartearen egoitzan, eta bestea Amasa-Villabonako Subijana etxean.


Elkartasun ekimena hasi dute marokoarrei laguntzeko

Patri Laiseka argazkilariak 'Photography x Charity Morocco' ekimena hasi du, berak ateratako argazkiekin

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO

Joan zen astean Marokon egon zen lurrikarak -Richter eskalako 6,9 gradukoa- eragindako hondamendian laguntzeko asmoz, hainbat ekimen ipini dute martxan. Besteak beste, Patri Laiseka argazkilari durangarrak 'Photography x Charity Morocco' ekimena hasi du; Laisekak salgai ipini ditu berak Marokon bertan ateratako argazkiak, eta batzen duen diru guztia hara bidaliko du Kamaleon kolektiboaren bitartez. Gainera, kolektiboak sukalde mugikor bat ipini du martxan, eta autoagaz bidaia egiten da-

biltza beharrezana duenari laguntzeko. Argazkilariak etxetik jaso du herri marokoarrekiko adeitasuna, eta Laisekak berak Marokorekiko hartu-eman estutu du azken urteetan, eta hainbat proiektu ere ipini du martxan. "Orain bost urte hasi nintzen hara bidaiatzen, eta geroago eta jende eta leku gehiago ezagutu dut; Essauira lan truke baten bitartez ezagutun nuen, baita hango argazkilari kolektibo bat ere", adierazi du. Argazkiak aukeratu eta informazio gehiagorako, +34 625 381 989 telefono zenbakira deitzeko esan du.



Laisekak salgai ipini dituen argazkietariko batzuk.

Gai librea

Unibertsitatearen aurka

Prekaritatearen muturretako bat izan daiteke lanean bizia galtzea. Uda honetan, adibidez, bi ikertzaile hil dira eguzki plaka bidezko kotxe hibridoarekin probak egiten ari zirela teknologia esperimentalak eztanda eginda Napolin.

Prekaritatearen beste aurpegi bat da funtsik gabe gelditzean ikerketa proiektuak etetea. Dirua lortzeko lehia estuaren arabera izango da hegaztien migrazio azterketa esaterako, eta jakingo dugu —edo ez— ea espezie gehiagotara zabaltzen ari ote den haien kumeak taimaina egokiko zizarez elikatze ezintasuna. Aldaketa klimatikoa eta biziraupena bera ere ez baitira nahikoa ikerketa zientifikoa segurtatzeko.

Prekaritatearen sarrerako atea da doktorego eskola, unibertsitateko ikasketen gorengo maila, gutxieneko soldaterekin sokasaltoan ari den beka siste-

Hona azken bat: lan on bat aurkitzeko lau bider aukera gehiago dute euskal unibertsitate pribatuetako ikasleek

mari lotuta dagoen lanbidea. Gainera, autoesplotazioa ongi ikusia den eremua da honakoa, eta berriki frogatu da doktoregaien osasun mentala gainontzeko herritarrena baino zaurgarriagoa dela. Presio eltze baten barruan ohartu orduko egosten zaituen bidea da doktoretza, zertarako ari zaren erantzuteko gai ez zaren puntura arte.

Prekaritatearen nibela handitu duen maniobraren emaitza izan da aste honetako EHUko ikasturte hasierako argazkia: agintariak irribarre zuri distiratsuz pankarta eskutan azken murrizketak salatu dituzten langileen aurrean, unibertsitateko or-

dezko irakasle batek gehienez ere 800 euro irabaziko baititu aurrerantzean. Lanaldi osoak lanaldi partzialekin beteko dituzte. Espainiako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren (USLO) aginpidea dela diote, ezin dutela ezer egin.

Prekaritatearen planifikazio baten aurrean gaudelako sintoma da, halaber, lege horren beste mandatu bati men ez egitea. USLOk dio unibertsitate publikoak BPGren %1 jaso behar duela, eta EHUK %0,4 baino ez du sostengu.

Prekaritatearen frogagiriak sobera honezkero sistema publikoan, halere hona azken bat: lan on bat aurkitzeko lau bider aukera gehiago dute euskal unibertsitate pribatuetako ikasleek.

Prekaritatearen kalitate-indize gorenak bikaintasuneko opari-paperekin bilduta. Herritarrentzako mehatxua argi: (unibertsitate) publikoaren aurka datoz.



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak ez du espero zuen moduan hasi denboraldia. Joan zen asteburuan bana berdindu zuen etxean, Padura taldearen aurka. Denboraldiaurrean aurkari bera 4-1 mendean hartuta, durangarrek garaipena zuten buruan, baina partidua laster okertu zen, 20. minuturako jokalaria bat gutxiagaz geratu zirelako. Hala ere, markagailuan aurrera hartu eta garaipena esku-eskura izan zuen Kulturalak, baina partiduaren azken hondarrea berdinketaren gola heldu zen.

Denboraldi hasiera dela eta ia partidu osoan bat gutxiagaz jokatu zutela kontuan hartuta, ez dago ondorio sakonik ateratzerik, baina alderdi positiboen artean hamar jokalarigaz erakutsiriko nortasuna eta ordena nabarmendu daitezke; baita etxekoen gola aurtengo fitxaketatariko batek sartu zuela ere, Unai Arietaleanizbeaskoak. Aurrelari bergararra Lehenengo Mailako

Aurtengo fitxaketen artean, Markel Areitio durangarra eta Lur Igartiburu elorriarra daude

partidu batzuk jokaturikoa da, Eibarregaz. Hobetu beharrekoen artean jasotako gola dago, azken minutuan eta txarto defendaturiko estrategia jokaldi batean heldu zena.

Jokalaria berriak

Partidua bertatik bertara ikusi zutenak ohartuko ziren Kulturalako hamaikakoko jokalaririk gehienak berriak zirela. Izan ere, iaztik lau jokalarik baino ez dute jarraitzen: Jon Aspiazuk, Unai Arizmendiarririk, Jon Lejardik eta Anton Alberdik. Gainerako 15 aurpegiak berriak dira. Pentsatzen zuten baino kopuru handiagoa da, Jon Garai klubeko

Durangoko Kulturalak aurpegi berri askogaz eta iazko emaitzak hobetzeko esperantzaz ekin dio denboraldiari

laztik lau jokalarik jarraitzen dute eta gainerako hamabostak berriak dira. Iñaki Garcia entrenatzailearentzat eta Jon Garai kirol zuzendariarentzat ere estreinako urtea da Durangon



Kulturaleko jokalaria Paduraren kontra sartutako gola ospatzen. LUIS ITURRIOZ

kirol zuzendariaren berbetan: "Taldea berritu gura genuen, baina ez horrenbeste. Baina mantendu gura genituen bost-sei jokalaria beste talde batzuetara joan dira eta espero baino gehiago fitxatu behar izan dugu". Nobedadeen artean sartu beharrekoa da Garai bera ere.

Getxo taldetik etorri den algortarra hasiberria da Kulturalako kirol zuzendari lanean.

Eskualdeko jokalaria

Talde nagusira batu diren artean eskualdeko lau jokalaria daude. Alde batetik, Markel Areitio atezain

durangarra, Lagun Onak taldetik datorrena. 27 urte gaz, esperientzia handiko atezaina da, besteak beste, Eibar taldeagaz Lehenengo Mailan debutaturikoa. Bestalde, Lur Igartiburu elorriarra Erandiotik dator, Bizkaiko Ohorezko Mailatik. Hirugarren Mailan —maila bat go-

rago— aritzeko gaitasuna duela eta eskuin hegala indartzeko jokalaria aproposa dela uste dute. Gainerako jokalaria berri biak harrobikoak dira: Asier Imaz eta Pablo Bizkarra. Gazte mailako taldea kategoriaz igo zen iaz denboraldi bikaina eginda, eta harrobira jo dute talde nagusiak postu batzuetan zituen hutsuneak estaltzeko.

Kuriositate modura, hiru fitxaketa talde beretik egin dituzte, Hirugarren Mailako Pasaia taldetik: Markel Ucin, Jon Sánchez eta Unai Olaizola. "Pasaia oso denboraldi ona egin zuen iaz, partidu asko ikusi genituen eta argi genuen hiru jokalaria horiek ekarri gura genituela", esan dute.

Asier Imaz eta Pablo Bizkarra harrobiko jokalaria lehenengo taldera igo dituzte aurretik

Nobedadea aulkian ere

Jokalaria sorta zabal horren gidari, beste aurpegi berri bat arituko da: Iñaki Garcia zaldibartarra. Aurretik Elorrio, Ondarroako Aurrera eta Getxo taldeetan aritutakoa da. Garaik ondo ezagutzen du Garcia, iaz Getxon aritu ziren biak eta. "Oso ona da taldeak eramaten eta konfiantza osoa dugu berarengan", dio Garaik.

Fitxaketak egiterakoan, taldeari sendotasuna ematea izan dute helburu. "Iazko akatsik handiena erregulartasun falta izan zen. Goi mailako taldeen kontra partidu itzelak jokatu ziren, baina behetakoan kontra partidu makalak sarritan. Erregulartasuna lortzeko, jokalaria lehiakorrak ekartzen ahalegindu gara", esan du Garaik.

Helburuei dagokienez, gurago du itxaron: "Partiduz partidu joango gara. Abenduan non gauden ikusiko dugu, eta orduan markatuko ditugu helburuak".

Yaiza Romero zornotzerra urpeko arrantzako munduko txapelkun geratu da taldeka

Hamaikagarren amaitu du maila indibidualean. Kantabrian lehiatu da txapelketa

URPEKO ARRANTZA • J.D.

Yaiza Romerok (Zornotza, 1997) beste jauzi bat eman du bere ibilbidean. Joan zen asteburuan, urpeko arrantzako munduko txapelketa lehiatu zuen Laredon (Kantabria), eta txapelkun geratu zen taldeka, Espainiako selekzioagaz. Sailkapen orokorrean hamaikagarren postuan amaitu zuen.

Iaztik hona oso postu onak lortu ditu nazioarteko txapelketetan —laugarren Finlandiako

Europako txapelketan eta bigarren Euroafrikako txapelketan, Tunisian—, baina Laredokoa izan du bere lehenengo parte-hartzea munduko txapelketa batean.

Itsaso barea, arrantza zaila

Munduko txapelketan arituriko 100 parte hartzaileek —30 emakumeetan eta 70 gizonetan— itsaso barea aurkitu zuten eta, kontrakoa eman dezakeen arren, horrek urpekarien lana zaildu

zuen. "Egun biak oso gogorrak izan ziren arrantzarako, arrain gutxi zegoelako. Itsasoa bare zegoen eta ikusmena handia zen. Kondizio horietan arraina ez da itsasertzean geratzen; itsasoan barneratzen da edo arroketan ezkututzen da. Hala ere, maila eman genuen", gogoratu du Romerok.

Yaiza Romero urpeko arrantzako Bizkaiko eta Euskadiko txapelketa da gaur egun, eta Espainiako txapelkunordea.



Yaiza Romero eskumako aldean, bere taldekideekin batera garaipena ospatzen.

Euskal Ligaren irabazlea Durangoko Landako kiroldegian erabakiko da

Gasteizko Araski, Donostiako IDK Euskotren eta Lointek Gernika Bizkaia taldeen artetik irtingo da irabazlea; domeka eguerdiko partidua jokatu eta gero sari banaketa egingo dute

SASKIBALOA • J.D.

Atzo hasi eta domekara bitartean goi mailako saskibaloiaz gozatze-ko aukera dago Durangoko Landako kiroldegian, emakumeen Euskal Kopako partidua jokatu-ko dira eta bertan. Hiru talde dabilta lehia: Araski, IDK Euskotren eta Lointek Gernika Bizkaia.

Atzo Araski eta IDK Euskotren taldeek neurtu zituzten indarrak; zapatuan, 12:00etan, Araski eta Lointek Gernika taldeen arteko norgehiagoka jokatu da, eta domeka eguerdian, IDK Euskotren eta Lointek Gernika taldeen artekoa. Azken partidu horren on-

doren egingo dute sari banaketa. Euskadiko Saskibalo Federazioak streaming bidez emango du zapatuko partidua, eta domekakoa ETBn ikusi ahal izango da.

Emakumeen taldeak 50 urte

"Aurtengoa oso denboraldi berezia da guretzat", adierazi du Hilario Pérez Tabirakoko presidentetarikoa batek. Izan ere, aurtun 50 urte betetzen dira emakumeen lehenengo taldea sortu zenetik.

Domekako sari banaketan, gutxienez jokalar horietarikoa batek parte hartuko du, gaur egingo jokalariren bategaz

Domeka eguerdiko azken partidua IDK Euskotren eta Lointek Gernika taldeen artekoa izango da

batera. Omenaldia ez da egun batera mugatuko. Tabirakok emakumeen kirolari loturiko ekimenak antolatze asmoa du denboraldian zehar eta ekimen horietan protagonista izango dira aitzindari izan ziren jokalar horiek.



Tabirako klubeko, Durangoko Udaleko, Euskadiko Federazioko eta saskibalo taldeetako ordezkariak aurkezpen ekitaldian.

Abadiñon kadete mailara arteko mahai-tenis txapelketa jokatu dute zapatuan

130 bat kirolari arituko dira lehia, Traña-Matienako pilotalekuan eta erabilera anitzeko kiroldegian



Abadiñon jokatuak mahai-tenis txapelketa bateko irudia.

MAHAI-TENISA • J.D.

Abadiñoko Mahai-Tenis Klubak eta Bizkaiko Mahai-Tenis Federazioak Bizkaiko lehenengo Iparraldeko Challenger Juniorra antolatu dute zapatu honetarako. Gazte mailako txapelketa da eta benjamin, kimu, haur eta kadete kategorietan zentratuko da. Guztira, 130 kirolari batuko dira Traña-Matienako frontoian eta erabilera anitzeko pabiloian, 10:00etan, eta egun osoan zehar arituko dira. Euskadiko, Nafarroako, Aragoiko, Gaztela eta Leongo, Errioxako eta

Kantabriako neska-mutiek parte hartuko dute, besteak beste.

Lehiaketaren helburu nagusia Iparraldeko klub eta federazioen artean elkarlanean aritzea da, jokalariek euren federazioetatik kanpoko beste kirolari batzuekin sarriago lehiatzeko aukera izan dezaten. Lehen Challenger ekitaldiak Burgosen, Santanderren, Iruñean, Avilesen, Irunen eta Donostian egin dira, eta 80 bat jokalarik parte hartu dute, batez beste. Zapatu honetan Abadiñok hartuko du lekukoa.

Jokaldia

Km-0 lasterketak

Sorginen Lasterketatik sei egun baino pasatu ez direnean, izandako arrakastaren olatuan, hausnarketa batzuk egin nahi nituzke mendi lasterketei buruz.

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaile eta korrikalari bezala ere bai lasterketan lagundu zeniguten den-denei, bat bera ere ahaztu gabe.

Hunkitzekoa ere bai Artolan animatzeko batu zen jendetza, urtez urte epikoagoa izaten ari den sentazioa dut.

Bestalde, poztasun handia ematen dit inoiz baino atxondar gehiagok jantzi zuela dortsala korrika egiteko. Hori da nire ustez aurtengo lorpenik handienetakoa bat.

Azkenik, azaldu nahi nuke aurtun Sorginen Lasterketa Etiketa Berdea deritzon lantalde baten sartu dela,-



Garazi Sampedro Arana
Mendi lasterketak

Hunkitzekoa ere bai Artolan animatzeko batuzen jendetza, urtez urte epikoagoa izaten ari den sentazioa dut

non balio etiko batzuk defendatzen ditugun. Gure ideia beti izan da kirol helburutik harago, lasterketa jasangarriago eta errespetuzkoago bat sortzeko konpromisoa izatea: baso bideak zainduz, korrikalariak elkar zain daitezela gogoraraziz, ahalik eta hondakin gutxien sortuz eta abar. Hainbat neurri har daitezke kontuan antolatzaileen aldetik Etiketa Berdedun lasterketa izateko. Baina, korrikalari bezala, zein da zure hautua elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritutako lasterketak aukeratzeko? Bada,

Etiketa Berdea duten lasterketetara izena emateaz gain (Txindoki, Beriain, Tontorramendi, Ubidestroi, Zaldibia, Triku Trail,...), 'gertutasuna' har genezake kontuan. Hau da, ez dut uste oso urrunera joan behar garenik lasterketa ederrez gozatzeko. Denok amestu izan dugu akaso Alpeekin edo beste kontinente bateko lasterketa batekin, ondo dago noizean behin hori. Baina, ez gaitzezen ahaztu Durangaldean eta gure eskualdetik gertu zenbat lasterketa zoragarri ditugun: Amaraune Berrizen, Ahuntzena Elgetan, Lemoatx, Kolazino Bedian, Anbotoko Kilometro Bertikala Arrazolan eta datorren astean izango den Aldapegora mendi lasterketa berria Elorrixon. Den-denak mimoz prestatuta daude, animatu eta seguru urtez urte errepikatzeko gogoia sartuko zaigula denoi!

Sorginen Lasterketa



Gertufest

Argazkiak: JOSEBA DERTEANO





F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



IURRETA
115 m². 4 logela eta 2 komun. Terraza, 150 m² erabilera eskusiboa. Ganbara eta garaje itxia.
250.000€ C.E.E= E



MATIENA
3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua.
159.000€ C.E.E= E



DURANGO
Familiabakarrekoa. 330 m². 4 logela eta 4 komun. Lorategia, terraza eta solariuma.
595.000 €



DURANGO
Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua.
340.000€ C.E.E. E



ASKATASUN ETORBIDEA
100 m². Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
335.000€ C.E.E= G



MADALENA
Bizitzen sartzeko moduan. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
175.000€ C.E.E= E

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatze. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Zeletabe kalea. 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatze. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.


//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
80,30 m²
3 logela
ASTEPE AUZOA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5 m²-ko trastelekua eta 10,80 m²-ko garajea. Berriztatze behar ditu.
224.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO
66 m²
3 logela
URKIAGA TORRE: Egongela, sukaldea, eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta erdigunetik gertu. Ezin hobea. 6 m²-ko trastelekua. Alokairuan erosteko aukerarekin.
172.000 € C.E.E: E



DURANGO
68,80 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: Beheko solairua (33,73 m²). Egongela handia, sukalde jantzia eta balkoia. Lehenengo solairua (25,07 m²), 2 logela, komuna eta balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Oso argitsua. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuekin. Egoera onean. Ganbara eta garajea.
275.000 € C.E.E: D



DURANGO
92 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: 2.008. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde- mendebalde- hegoaldea) Argitsua. Herriko sarreratik gertu, zonalde berdeak. Ezin hobea. Garaje itxia eta handia.
308.000 € C.E.E: E



ABADIÑO
318 m²
GAZTELUA AUZOA: Baserria. Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxetokia, 78 m² erabilgarri dituena. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatze. Ingurune berdea eta lasaia, Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura.
440.000 € C.E.E: Bidean



BERRIZ
215 m² erabilgarri (0,1945 m²/m²) dituen familia bakarreko etxebizitza eraikitze baimenarekin, beheko solairuan eta lehen solairuan banatuta, baita 54 m² erabilgarri dituen garaje bat ere. Igerilekuak, eguzki-plakak, oillategia, fruta-arbolak, bi lanabes-txobola... Oso ondo kokatuta dago, ingurune lasai batean eta herriaren erdigunetik gertu.
245.000 €

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatze. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ ORAIN 280.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€ ORAIN 85.000€ / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

//GARAI

MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 17 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 18 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 19 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 20 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 21 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Amets (946. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozaturango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Jon**, txapeladun! Zurekin urte ederra pasa eta gero heldu da zure 11. urtebetetze eguna: irailaren 14a. Asko gozatu zuk ederto dakizun moduan, artista! Jarraitu horrelakoa izaten, oso harro gaude zutaz. Belarritik hamaika tirekada familiako danon partez.



Zorionak zure 46. urtebetetzean familia guztiaren partez.



Zorionak familia guztiaren partez! Besarkada eta mosu handi bat denon partetik.




Zorionak familia eta lehegusu-lehengusina guztien partez. 12 mosu handi.



Malen Bergaretxe Garitaonandiak
10 urte egiten ditu irailaren 18an.
Oinatz Bergaretxe Garitaonandiak
6 urte egin zituen abuztuaren 23an. Gure etxeko txikixak handi egiten, segi ametsak egi bihurtzen. Zorionak ta muxu handi bana aitaxo ta amatxon partez.



Abuztuaren 30ean **Natalik** urteak egin zituen. Zorionak, laztana!



Irailaren 6an **Karmelo Iriondon** urtegun ospatu gendun. Zorionak, aittitte! Besarkada handi bat!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 18° / 28° ☁️

ASTELEHENA ↓ 17° / 26° ☁️

EGUAZTENA ↓ 14° / 26° ☀️

DOMEKA ↓ 18° / 29° ☁️

MARTITZENA ↓ 15° / 23° ☁️

EGUENA ↓ 15° / 26° ☁️

"Belaunaldi berriak erakarri gura ditugu ontzi modelismora"

Javier Atxurak Bizkaiko Irrati kontrol bidezko Ontzi Modelismo Elkartearen sorreran parte hartu zuen. Orain, Raul de La Cruzek eta beste bazkide gazte batzuek hartu dute lekukoa



Jabier Atxurra Gojenola

Ontzi Modelismo Elkarte kidea

ZORNOTZA | 1944

Raul De la Cruz Hidalgo

Ontzi Modelismo Elkarte kidea

ZORNOTZA | 1986

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Hiru hamarkada pasatu dira Bizkaiko Irrati-kontrol bidezko Ontzi Modelismo Elkarte sortu zela Zornotzan. Gaur egun 20 bat bazkide dira eta belaunaldi gazteak erakartzea dute erronka. Zapatuan Fuenlabradan (Espainia) egingo den ontzi modelismo erakustaldian parte hartuko dute.

Noiz zaletu zineten modelismora?

Javier Atxurra: Orain 45 urte. Industria-maisua izan naiz eta 19 urtegar langileei tornuak, fre-satzeko makinak... erabiltzeko formakuntza eskolak ematen hasi

nintzenez murgildu nintzen modelismoan. Modu autodidaktan, gauza batek bestera eramanda. Autoekin hasi nintzen. Gero etorri ziren itsasontziak, hegazkinak, droneak...

Raul De la Cruz: Zornotzan Karmen egunean egiten den erakustaldian ezagutu nuen elkarte, eta han nabil harrezkero. Badira 20 urte. Javierrek eta eskarmentu handia duten beste batzuek irakatsi didate dakidan guztia; oraindik ikasten jarraitzen dut. Irrati kontrola da gustatzen zaiguna, eta 10 urtetik hona aeromodelismoan ere banabil murgilduta.

J.A.: Zaletasuna izatea da garrantzitsua. Hori edukita, topatzen duzu modua aurrera egiteko. Eskarmen-

Orain 30 urte, modelismoak dirutza bat eskatzen zuen. Orain, oster, edonork egin dezake

tu handiagoa dutenekin elkartuta, arazoak gainditzea eta ez uztea lortzen duzu.

Modelismoak arreta eta pazientzia handia eskatzen dituela esan daiteke.

J.A.: Bai. Eta aurretiko ezagutza.

R.D.C.: Egia da. Hala ere, gaur egun errazagoa dela esango nuke. Laguntza gehiago dago. Gainera, materiala ez da garai batean besteko garestia. Asko merkatu da.

J.A.: Orain 30 urte dirutza eskatzen zuen. Orain, oster, edonork egin dezake. Materialen fidagarritasuna eta kalitatea ere askoz hobek dira.

Zenbat itsasontzi dituzue?

J.A.: 16 itsasontzi, itsaspeko bat eta batiskafo bi ditut, zurez, beira-zuntzagaz eta karbono-zuntzagaz egindakoak. Zortzi kilo pisatzen duen 80 zentimetroko autoa ere badut, eta ilobari oparituriko txikiago bat.

R.D.C.: Zortzi itsasontzi ditut, beira-zuntzagaz egindakoak; eta 3D inprimagailuagaz egindako beste bi. Bestalde, 12 hegazkin ditut, benetakoen erreplikak, eta sei drone.

Baduzue bereziki kutuna duzen itsasontzirik?

R.D.C.: Osorik zurez egindako bapozeko atoiontzi zahar bat, Ulises. Hainbat buruko min eman zidan eta denborarik gehien horrek eskatu dit.

J.A.: Bapozeko motorra duen 1,10 metroko atoiontzi bat. Aparteko kapritxoa da. Urte bi eta erdiko lana eskatu zidan. Badut beste bat tamaina berekoa, 22 motor dituen.

Ipini dituzue nabigatzen Ibaizabal errekan?

J.A.: Jakina! Ez du zentzurik ontzi zoragarri bat eraikitzeak eta apalean gordeta edukitzeak.

R.D.C.: Hainbeste lan eta denbora hartu ondoren, pena ematen du uretan ez probatzeak.

Badago zaletasunik eskualdean?

J.A.: Gutxi, nahiz eta erraztasunak eman eta ahalegin guztia egin jendea zaletu dadin.

R.D.C.: Belaunaldi berriak erakarri gura ditugu, eta ematen du hasi garela ezagutzera ematen, sare sozialen bitartez. Batzuk ipini dira gugaz hartu-emanetan. Laguntzeko prest eta besoak zabalik gaude.

Lau-hortza

Karolina Suarez Borges
Kazetaria



Sasi-koadro kliniko

Ikasturte hasiera noiz arte luzatu daitekeen ez noa ni esatera, norberak heldu diezaiola bere engainuari. Norberak sortu dezala abagune aproposa turista izatetik peoiz jantzita norbere buruari ondo dagoela esatera pasa eta ikasturte batez horri eusteko. Ezagutzen dut inor abagune horren mugatzat Durangoko jaiak dituenik. Pentsa zenbat buru maitagarri bezain zoro errealitatetik ihes egin nahian.

Etxean ez dugu telebista-antena eta gutxitan topatzen gara ohiko kanaletako edukiekin. Gutxitan haur askok buruz dakizkiten iragarkiekin. Ordea, limurtu gura zaituen kostala ahala kostala iristen da zugana, eta han topatu ginen pisukidea eta biok zazpi minutuz ikasturte hasierako iragarki zaparradarekin. Gehienek "opor osteko depresioa" deritzona zerabilten, eta, gu, pantailaren beste aldean sasi-koadro kliniko hori irensten, barruraino.

Hilabete bat da lanera bueltatu naizela, kostata, pasa dut sindromea. Guztia patologiko bihurtzea gustuko dugu, baina berez, oporrak bukatu eta lanera itzultzeak sortzen dizkigun amorrazio eta oztopoak definitzen baino ez gabilta. Kasu honetan, ez al da sindromea erantzun osasuntsu bat? Lanera itzuli denak eman dezakeen erantzunik osasuntsuena?

Norbaitek lanera itzuli nahi badu, arazo bat daukan seinale da niretzat. Opor ostean, lana eta ardurak ezin dira gure bizitzaren oinarri bilakatu; garrantzitsua da gure gozamenarako gune eta tarreak aurkitzea. Izan ere, urte berri batek baino asmo gehiago dakartza ikasturte berriak nahiz eta aurreko aldiko erronka berdinekin abiatzen garen maiz.

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.

